

# Lasarte-Oriako Jarduera Fisiko eta Kirol Plana

## 1.zatia: egungo egoeraren azterketa



## AZTERKETA

1. Ingurunea: udalerriko datu orokorrak	3
1.1. Udalerraren deskribapen fisikoa eta kokapen geografikoa	3
1.2. Lasarte-Oriako herritarren eboluzioa aztertzen	4
2. Jarduera fisiko eta kirol eskaintza eta praktika maila	7
2.1. 6-16 urte bitarteko herritarrak	8
2.2. 17-30 urte bitarteko herritarrak	20
2.3. 31-65 urte bitarteko herritarrak	29
2.4. 65+ herritarrak	34
3. Egiturak eta jarduera fisiko eta kirolaren sustapena	40
3.1. Elkarteak: kirola, kultura eta aisialdia	40
3.2. Buruntzaldea Kirolak	49
3.3. Lasarte-Oriako kirolguneak: kiroldegia eta Michelin gunea	50
3.4. Udala: kirola eta jarduera fisikoa zeharkakotasunetik landuz	55
4. Azpiegitura, instalazioak eta ekipamenduak	66
4.1. Ingurune naturala	66
4.2. Herri-ingurunea	67
4.3. Instalazio eta ekipamenduak	68
5. Herritarren iritzi eta proposamenak	83

## DIAGNOSIA

AMIA kuadroa	87
--------------	----

## AZTERKETA

### Ingurunea: udalerriko datu orokorrak

#### 1.1. Udalerriaren deskribapen fisikoa eta kokapen geografikoa



Beste udalerrri batzuen menpe egon ondoren, Lasarte eta Oriak 1986an bat egin zuten, Lasarte-Oria udalerrria sortuz. Urumea eta Oria haranen artean estrategikoki kokatuta, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren ipar-ekialdean dago, Donostialdea eskualdean.


Donostialdeko beste udalerrri batzuekin batera, Andoain (hegoaldera mugakide), Hernani eta Urnieta (ekialdera mugakide) eta Usurbilekin batera (mendebaldera mugakide), hain zuzen, Buruntzaldea elkarte osatu zuten, kirol eta euskararen arloan lankidetzan aritzeko. Egun, hedaduraz, Donostialdeko udalerrri hauek osatzen duten azpieskualdea izendatzeko ere erabiltzen da.

18.000 biztanle inguru eta 6,01km<sup>2</sup>-ko azalerarekin, Gipuzkoan biztanle-dentsitate handiena duen herria da Lasarte-Oria (2.984,23 biz./km<sup>2</sup>), lurzoru gehiena hiriguneari baitagokio.

Oria ibaia udalerritik igarotzen da eta hegoaldean uzten du izen bereko auzunea.


## 1.2. Lasarte-Oriako herritarren eboluzioa aztertzen

Ondorengo irudietan Lasarte-Oriako azken urteetako errealitate demografikoa aztertzen da:



Lasarte-Oriako azken hamabost urteetan biztanleriak izandako eboluzioan bi garai ezberdinu daitezke. Biztanle kopurua gutxitzen ari bazen ere, 2001 urtea inflexio-puntu izan zen eta ordutik gaur arte biztanle kopuruan izandako gorakada etengabea izan da.

ITURRIA: Norberak egina, GFAREN udal errolda oinarri hartuta




Dinamika geografikoa aztertuz, bi dira biztanleriaren gorakada ulertzeko, besteak beste, aipatu beharreko faktoreak: Lasarteko herritarren berezko hazkundera (izandako jaiotzen eta heriotzen arteko aldea) eta migrazio (nazioarteko jatorria dutenen etorrera eta emigratzaileen arteko aldea).

2011 arte berezko hazkundera mantendu bazen ere, urte horretan beherakada nabarmena jasan zuen. Migrazio saldoan, aldiz, hiru urtetik behin joera aldatuz joan da eta gorabehera nabarmenak antzeman dira.

ITURRIA: Norberak egina, EUSTATEN datuak oinarri hartuta

Biztanle-egituraren eboluzioa, adin-talde eta sexuaren arabera




ITURRIA: Norberak egina, GFaren udal errolda oinarri hartuta

Irudian azaltzen den biztanleen piramidean Lasarte-Oriako 2003 eta 2013ko biztanle kopurua alderatu dira, adin-taldearen arabera eta baita sexuaren arabera ere. Piramidea aztertuz aipatzekoak: oinarriak estua izaten jarraitzen du eta piramidearen tontorra zabaltzen ari da nabarmen.

Ondorioz, Lasarte-Oriak biztanle-piramide atzeragarria duela esan daiteke, trantsizio demografikoa amaitu duten gizarte garatuen ezaugarri. Zahartutako biztanleak ditu, zahartze-tasa (65 urtetik gorakoak) eta gehiegi zahartze-tasa (75 urtetik gorakoak) hazten doaz, jaiotza-eta heriotza-tasa txikiak dira eta, horrenbestez, berezko hazkundera edo hazkunde begetatiboa txikia du Lasarte-Oriak.


Lasarte-Oriako biztanleen eboluzioa, sexuaren arabera 2003-2013




ITURRIA: Norberak egina, GFaren udal errolda oinarri hartuta

2007 urtetik aurrera, emakume eta gizonen arteko aldea handituz joan da. Emakume kopuruak gorakada etengabea jasan du eta gizonen kopuruak ez du aldaketa esanguratsurik jasan. Adinaren arabera aztertuz, aipagarria da 0-14 urte bitartekoen artean eta 65 baino gehiagokoen artean egon den gorakada, batez ere, emakumeen artean.

Lasarte-Oriako gizonen eboluzioa, adinaren arabera 2003-2013



Lasarte-Oriako emakumeen eboluzioa, adinaren arabera 2003-2013



ITURRIA: Norberak egina, GFaren udal errolda oinarri hartuta

## 2. Jarduera fisiko eta kirol eskaintza eta praktika maila

Lasarte-Oriako kirol eta jarduera fisikoaren eskaintza eta praktika maila ezagutzeko, biztanleak adin-talde ezberdinen arabera banatu dira. Horregatik, hurrengo ataletan udalerrian adin-talde zehatz bakoitzerako dagoen eskaintza eta praktika maila aztertzen dira.

Ondorengo adin-taldeak dira aztergaiak:



6-16  
urte bitarteko  
herritarrak



17-30  
urte bitarteko  
herritarrak



31-65  
urte bitarteko  
herritarrak



65+  
herritarrak



## 2.1. 6-16 urte bitarteko herritarrak

Adina	Kirol kategoria	Hezk. Sist. egitura	Jarduera Fisiko eta Kirol eskaintza 6-16		
			Eskola-orduetan	Eskola-orduetatik at	
15-16	Kadeteak	Oinarrizko Hezkuntza DBH	4	Eskola Kirola	
14-15			3		
13-14	Infantilak	Oinarrizko Hezkuntza DBH	2		Kirol elkarteak
12-13			1		
11-12	Alebinak	Oinarrizko Hezkuntza LH	6		Kirol eskolak
10-11			5		
9-10	Benjaminak	Oinarrizko Hezkuntza LH	4	Kiroldegia	
8-9			3		
7-8	Benjamin-aurrekoak	Oinarrizko Hezkuntza LH	2	Aisialdia eta kultura: Ttakun KE eta Kukuka	
6-7			1		





LASARTE-ORIA  
UDALA - AYUNTAMIENTO



6-16 urte bitarteko neska-mutilen artean Lasarte-Orian dagoen kirol eta jarduera fisikoaren eskaintza aztertzen hasita, bi esparru hartu behar dira kontuan: eskola orduak eta hortik kanpokoak. Ondorengo irudian laburbilduta azaltzen da adin-talde honetarako Lasarte-Orian dagoen eskaintza:

## ESKOLA-ORDUETAN

### GORPUTZ HEZIKETA

Eskola orduetan egiten den jarduera nagusia, Lehen eta Bigarren Hezkuntza, Gorputz Heziketa da. Ikasurte guztian zehar asteroko saioak izaten dituzte ikasleek.

Lehen eta Derreigorrezko Bigarren Hezkuntzan Gorputz Heziketarako kurrikulumak Eusko Jaurlaritzako [www.gorputzheziketa.net](http://www.gorputzheziketa.net) helbidean daude ikusgai. Bertan definitzen dira ziklo bakoitzerako helburuak eta edukiak.

### IGERIKETA KANPAINA

Igerian ikasteko jarduera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin Udalek eta ikastetxeek aurrera ateratzen duten Igeriketa Kanpainaren baitan kokatzen da. Horrela, urtero Lehen Hezkuntzako lehenengo lau mailletako ikasleek igeriketa saioak jasotzen dituzte, igerian egiteko oinarrizko trebetasunak garatzeko.

## ESKOLA-ORDUETATIK AT

### ESKOLA KIROLA

Eskola Kirolari dagokionez, Lasarte-Orian Tokiko Batzordeak ikasurte bakoitzerako programa diseinatzen du (Gipuzkoako Foru Aldundiaren programa kontuan hartuz) eta Ttakun Kultur Elkarteak koordinatu eta kudeatzen ditu eskaintza eta talde ezberdinak.

### KIROL ESKOLAK

Udalerriko zenbait kirol elkartek kirol eskolak dituzte. Kirol elkarteak, batetik, eskola kiroleko jardueren osagarri dira (Ttakun Kultur Elkartearen eta kirol elkarten arteko lankidetzari esker) eta, aldi berean, zenbait kirol elkartek beraien eskaintza propioa dute kirol eskoletan.

### KIROLDEGIA

Kiroldegiak urtero ere adin-talde honi zuzendutako ekintza-programa diseinatu eta kaleratzen du.

### AISIALDIA eta KULTURA

Ttakun KEk gazteei zuzendutako aisialdiko eskaintzetan kirola eta jarduera fisikoko ekintzak barneratzen ditu eta Kukukak dantza eta antzerkia eskaintzen ditu.

Ondoren atalez atal eskaintza bakoitzaren ezaugarriak eta bakoitzean dagoen partaidetza maila azaltzen da:

## GORPUTZ HEZIKETAKO ESKAINTZA ETA PRAKTIKA MAILA

Gorputz Heziketako saioetan Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasle guztiek hartzen dute parte. Horrenbestez, jarduera honetan Lasarte-Oriako ikastetxeetan matrikulatutako ikasle guztiek hartzen dute parte.

2013/2014ko matrikulazioak eta Lasarte-Orian errolatuta dauden adin-talde honetako neska-mutil kopurua kontuan hartuz, Lasarte-Orian errolatuta dauden %77a dago matrikulatuta udalerriko ikastetxeetan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, aldiz, %69a.

Ikasmaila	Ikasle kopurua	Lasarte-Orian errolatuak*
LH1	151	184
LH2	150	192
LH3	142	202
LH4	129	165
LH5	122	160
LH6	134	175
<b>GUZTIRA</b>	<b>828</b>	<b>1.078</b>
DBH1	111	151
DBH2	117	142
DBH3	90	131
DBH4	80	159
<b>GUZTIRA</b>	<b>398</b>	<b>583</b>

\*zenbat urterekin hasi ziren 2013/2014 ikasturtea hartu da kontuan.

## IGERIKETA KANPAINAKO ESKAINTZA ETA PRAKTIKA MAILA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin, Lasarte-Oriako Udalak ikastetxeekin urtero antolatzen duen igerian ikasteko jardueran Lehen Hezkuntzako ikasmaila ezberdinetako neska-mutilek hartzen dute parte. 2013/2014 ikasturtean, urritik maiatzera bitartean, Lehen Hezkuntzako lehenengo bi zikloetako ikasleek, LH1etik LH4ra bitartekoek, hartu zuten parte jarduera honetan. Jarduera honetan, guztira azken ikasturte honetan 438 ikasleek hartu zuten parte eta 405 igeriketako eskola-ordu eman ziren.

Ikastetxe bakoitzaren beharren arabera, saioak goizez nahiz arratsaldean izan ohi dira. Saio kopuruari dagokionez, talde batzuk 20 saio egin dituzte, beste batzuk 15 eta beste batzuk, aldiz, 10 saio.

Horrez gain, Urnietako eskolako ikasleak ere izan dira 2013/2014 ikasturtean zehar Lasarteko igerilekuan, guztira, 142 ikasle eta 200 eskola-ordu dira eman direnak.

## ESKOLA KIROLEKO ESKAINTZA ETA PRAKTIKA MAILA

2008ko Eskola-Kiroleko Dekretuaren arabera, *eskola-kirola da eskola-umeek eskola-aldian baina eskola-orduetatik kanpo egiten duten kirol jarduera. Eskola-Kiroleko jarduerak hezigarriak izan behar dute, alegia, eskola-umeen heziketa integralaren barruan kokatuta egon behar dira eta heziketa sistemaren eta haren etapen helburuekin bat egingo dute oro har, bereziki gorputz-hezkuntzaren alorreko helburuarekin.*

Hau guztia kontuan hartuz, Lasarte-Oriako eskola kiroleko programa Tokiko Batzordeak diseinatzen du, Gipuzkoako Foru Aldundiko programa aintzakotzat hartuta, eta Ttakun Kultur Elkarteak nagusiki koordinatu eta kudeatu egiten du jarduera hau. Tokiko Batzordea guraso elkarteek, Ttakun Kultur Elkarteak eta Udalak osatzen dute, hain zuzen. Hala ere, Institutuko eskaintza ikastetxeak berak antolatu eta kudeatzen du eta, horretarako, badu hortaz arduratzen den koordinatzaile bat. Ttakun Kultur Elkarteak, bere aldetik, udalerriko kirol elkarteekin lankidetzan aritzen da. Batzuetan, Ttakun elkarteak eskaintza antolatu eta kudeatzen du baina zenbait modalitateetako saioak kirol elkarteetako begiraleek gidatzen dituzte. Horretarako, ikastetxeen eta kirol elkarten artean lankidetzak hitzarmenak sinatzen dira.

Edozein motatako eskaintza aztertzeke adierazle ezberdinak aukeratu daitezke baina kirol eta jarduera fisikoko eskaintza aztertzeke, nagusiki, bi dira eskaintzen den zerbitzuaren kalitatearekin harreman zuzena dutenak eta aztertu ohi direnak: begiralea eta instalazioak. Azterketa honetan azpiegiturak eta instalazioak aurrerago aztertuko dira. Begiraleen profila ezagutzeko ordea, Buruntzaldeako elkarteak, besteak beste, lau urtetik behin Buruntzaldeako eskola kiroleko azterketa sakona egiten du eta beste gauza askoren artean hauxe aztertzen dute. Azken ikerketa 2010/2011 urtean egin zen eta hauek begiraleen inguruan jasotakoak:

Eskola kiroleko begiraleen profila 2010/2011

Adina	16-24	45,9%
	25-44	29,5%
	>44	24,6%
Titulazioa	Titulaziorik gabe	49,2%
	Oinarrizko titulazioa	18,0%
	Erdi-mailako entrenatzailea	11,5%
	Goi-mailako entrenatzailea	16,4%
	Begirale modulua	0,0%
	Irakasle erreziklatu/espezializatua	1,6%
	IVEFa	3,3%
Jatorria	Enpresa batekoa	7,8%
	Gurasoa	0,0%
	Ikastetxekoa	2,0%
	Kirol elkartekoa	90,2%

ITURRIA: Norberak egina, Buruntzaldeako datuak oinarri

Antolaketari dagokionez, ikasturte bakoitzaren amaieran ikastetxeek datorren urterako eskaintza helarazi eta gurasoekin bilera egiten dute ikasturtea amaitu aurretik neska-mutilek izena eman dezaten eskaintzan. Horrela, irailean parte-hartzaileei ikasturteko egutegia banatzen zaie eta saioak urrian hasten dira.

Ikasmilla bakoitzerako eskaintza zehatza dago eta ibilbide bat baino gehiago eskaintzen zaizkie neska-mutilei. Ikus hurrengo irudian:

### Eskola kiroleko eskaintza 2013/2014

	AZALPENA	IRAUPENA	INSTALAZIOAK	KUOTA
LH1 - LH2 Aurrebenjaminak	KIROL HASTAPENA			
	Jolasaren bidez kiroletera hurbiltzeko eskaintza.	1 ordu astean	Ikastetxean	Bai
LH3 - LH4 Benjaminak	MULTIKIROLA			
	Taldeko nahiz bakarkako kirolak txandakatuko dira, guztira, 8 modalitate ezberdin. Larunbatetan topaketak eta derrigorrezkoa da hauetan parte-hartzea.	Astean 2 ordu	Kiroldegian	Bai
	BANAKAKO KIROLA			
	Atletismoa, judoa, igeriketa, eskupilota, gimnasia erritmikoa, txirrindularitza eta ur-jarduerak. Bat aukeratu eta ikasturte guztian zehar lantzeko.	Ordubete astean	Kiroldegian	Bai
	KIROL JOLAS SOZIOMOTOREAK			
	Kirol konkretuak praktikatu gabe, jokoaren bidez kirola lantzeko beharrezko abileziak lantzeko.	Ordubete astean	Kiroldegian	Bai
LH5 - LH6 Alebinak	TALDE KIROLAK			
	Saskibaloia, errugbia eta futbola.		Michelin Garaikoetxea- Landaberri Ikastola	Bai
	BANAKAKO KIROLAK			
	Atletismoa, judoa, igeriketa, eskupilota, gimnasia erritmikoa, tenisa, natur ekintzak eta erritmo eta gorputz adierazpena.	Kirolaren araberakoa	Michelin Kiroldegia	Bai
DBH1 - DBH2 Infantilak	LEHIAKETA JARDUERAK			
	Saskibaloia, errugbia, futbola, atletismoa, judoa, igeriketa, txirrindularitza, eskupilota, gimnasia erritmikoa eta tenisa. Bat aukeratu eta ikasturte guztian zehar lantzeko.	Astean 3 ordu	Michelin Kiroldegia	Bai
	LEHIAKETA GABEKO JARDUERAK			
	Erritmo eta gorputz adierazpena	Ordubete astean	Garaikoetxea- Landaberri Ikastola	Bai
	LEHIAKETA GABEKO JARDUERAK			
DBH3 - DBH4 Kadeteak	Natur ekintzak	Astean bi egun, bat larunbatetan	Jardueraren arabera	Bai

ITURRIA: Norberak egina, Ttakun Kultur Elkarteak datuak oinarri hartuta

DBH1etik DBH4ra bitarteko eskaintzan, Ttakun Kultur Elkartek lehiaketa gabeko bi jarduera eskaintzen ditu, elkartearen eskaintza propioa direnak: erritmo eta gorputz adierazpena eta natur ekintzak. Bi ekintza hauek eskola kiroleko programatik at daude, baina harrera oso ona dute neska-mutilen partetik. Oztopo bakarra da, bi jarduera hauetarako, diru-laguntzarik ez dutela jasotzen.

Eskola kiroleko partaidetza, Lasarte-Oriako ikastetxeetan matrikulatutako neska-mutilen artean 2013-2014

Kirol maila bakoitzerako dauden ibilbide edo eskaintza ezberdinak aurrera ateratzeko, taldea osatzea ezinbestekoa da. Ibilbide bakoitzean taldea osatzeko gutxienezko kopurua 10 pertsonakoa da.

Eskola kiroleko datuak aztertzerakoan, kontuan izan behar da infantil eta kadete kategoriako neska-mutilak kirol elkarteetan, federatuta, aritu daitezkeela eta joera hau oso ohikoa da udalerrri askotan. Horregatik, alebin mailatik infantil mailara dagoen beharakadaren arrazoiak ezagutzeko, kirol elkarteetako datuak ezagutzea garrantzizkoa da kirol-uztea egon den ala ez jakiteko.


Eskola kiroleko partaidetza aztertzeke, beraz, benjamin eta alebin mailetan dagoen kopurua ezagutzea da esanguratsua. Kasu honetan, partaidetza %50ekoa da gutxi gorabehera, hau da, Lasarte-Oriako ikastetxeren batean LH3tik LH4ra matrikulatuta dauden neska-mutilen erdia eskola kirolean aritzen da.

Azken bi ikasturteak alderatuz, partaidetzak gora egin du, batez ere, neskenak. Azken ikasturtean parte hartu dutenen %66,5a neskek izan dira eta %33,5a mutilak.

Ikasmaila	Kirol maila	Matrikulazioak	Eskola kirolean partaidetza	
LH1 + LH2	Benjamin-aurrekoak	301		
LH3 + LH4	Benjaminak	271	141	52,0%
LH5 + LH 6	Alebinak	256	117	45,7%
DBH1 + DBH2	Infantilak	228	41	18,0%
DBH3 + DBH4	Kadeteak	170	29	17,1%
<b>GUZTIRA</b>		<b>1226</b>	<b>328</b>	<b>26,8%</b>

ITURRIA: Norberak egina

Eskola kirolean, benjamin eta alebin mailako neska mutilen partaidetza eskola kirolean 2013-2014 (%)



ITURRIA: Norberak egina

Eskola kiroleko partaidetza, kirol kategoriaren arabera 2012/13-2013/14

	2012/2013			2013/2014		
	Emak.	Gizonak	Guztira	Emak.	Gizonak	Guztira
<b>Benjaminak</b>	60	71	<b>131</b>	60	81	<b>141</b>
<b>Alebinak</b>	49	44	<b>93</b>	73	44	<b>117</b>
<b>Infantilak</b>	44	5	<b>49</b>	35	6	<b>41</b>
<b>Kadeteak</b>	17	12	<b>29</b>	29	0	<b>29</b>
<b>Guztira</b>	<b>170</b>	<b>132</b>	<b>302</b>	<b>197</b>	<b>131</b>	<b>328</b>

ITURRIA: Norberak egina

Eskola kiroleko partaidetza, modalitate eta sexuaren arabera 2013/14

Ondoko taulan, eskola kirolean egiten diren kirol modalitateak azaltzen dira eta bakoitzean izan den partaidetza 2013/14 ikasturtean:

<b>Benjaminak</b>	<b>Neskak</b>	<b>Mutilak</b>
Tenisa	7	4
Erritmo Gimnastika	15	
Multikirola	34	56
Judoa	1	4
Atletismoa	3	2
Xakea*		
Igeriketa**		
Pilota**		15
<b>GUZTIRA</b>	<b>60</b>	<b>81</b>
<b>Alebinak</b>	<b>Neskak</b>	<b>Mutilak</b>
Futbola		4
Tenisa	7	28
Saskibaloia	39	2
Atletismoa	2	
Igeriketa	6	3
Xakea*		
Txirrindularitza**		
Pilota**		7
Judoa**		
Erritmo Gimnastika**	19	
<b>GUZTIRA</b>	<b>73</b>	<b>44</b>
<b>Infantilak</b>	<b>Neskak</b>	<b>Mutilak</b>
Tenisa	4	3
Aerobika***	6	
Atletismoa	6	3
Saskibaloia**	19	
Erritmo Gimnastika**		
<b>GUZTIRA</b>	<b>35</b>	<b>6</b>
<b>Kadeteak</b>	<b>Neskak</b>	<b>Mutilak</b>
Boleibola***	4	3
Atletismoa***	6	
Saskibaloia**	6	3
<b>GUZTIRA</b>	<b>16</b>	<b>6</b>

\*Sasoetako kirol eskaintzan soilik

\*\* Landaberriko kirol eskaintzan soilik

\*\*\*Institutuko kirol eskaintzan soilik

ITURRIA: Norberak egina

## KIROL ESKOLETAKO ESKAINTZA ETA PRAKTIKA MAILA

Eskola adinean dauden neska-mutilei zuzenduta kirol elkarteek ere badute eskaintza, kirol eskolen bitartez egiten dutena, hain zuzen. Udalerriko kirol eskolaren batean dabilenak, ordea, derrigorrezkoa du eskola kiroleko partaide izatea. Horrela, astean behin eskola kiroleko saio batean hartzen du parte eta beste batean edo bitan, kirol eskolan.

Beraz, Lasarte-Oriako kirol elkarte batzuk 7 urte baino gehiagoko neska-mutilentzako eskaintza propioa dute; beste batzuk, eskola kiroleko eskaintzan lankidetzan aritzen dira (elkarteko begiraleek zuzentzen baitituzte eskola kiroleko saioak, e.a.); eta azkenik, beste zenbait elkartek eskaintza propioa izateaz gain, eskola kirolean ere lankidetzan aritzen dira.

Ondorengo irudian kirol eskola duten elkarteak eta eskola kirolarekin lankidetzan aritzen diren elkarteak azaltzen dira:

Kirol eskolek eskaintzen dituzten modalitateak eta eskola kirolarekin lankidetzan aritzen direnak 2013/2014

Ondoko taulak adierazten duen bezalaxe, herriko 6 kirol elkarten artean eskola adineko neska-mutilei 10 modalitate egiteko aukera eskaintzen zaie kirol eskoletan.

Elkarte hauetatik bat izan ezik beste guztiak, aldi berean, eskola kirolarekin lankidetzan aritzen dira. Ostadar KFren kasuan, futbolean bai baino tenisean ez, modalitate hau Ttakunek Lasarte-Oria KEren bidez antolatzen baitu ikastetxeetan.

Modalitatea	Kirol Elkartea	Kirol Eskola	Eskola Kirolean lankidetzan
Errugby-a	Ostadar KF	Bai	Bai
Txirrindularitza	Buruntzazpi Txirrindularitza	Bai	Ez
Igeriketa	Buruntzaldea Igeriketa	Bai	Bai
Futbola	Ostadar KF	Bai	Bai
Tenisa	Ostadar KF	Bai	Ez
Saskibaloia	Ostadar KF	Bai	Bai
Atletismoa	Lasarte-Oria KE	Bai	Bai
Gimnasia Erritmikoa	Lasarte-Oria KE	Bai	Bai
Judoa	Lasarte-Oria KE	Bai	Bai
Tenisa	Lasarte-Oria KE	Bai	Bai
Eskupilota	Intza KE	Bai	Bai
Karatea	CD Senshu	Bai	Ez

ITURRIA: Norberak egina

Kirol eskola duten elkarteek egiten duten eskaintzaren ezaugarri orokorrak ondorengo taulan azaltzen dira:

Kirol eskolen eskaintza 2013/2014

Modalitatea	Kirol Elkartea	Saio kop. asteen	Kuota	Begiralea
Errugby-a	Ostadar KF	2	Ez	Trebatuak eta trebatu gabeak
Txirrindularitza	Buruntzazpi Tx.	2	Ez	Trebatuak
Igeriketa	Buruntzaldea IT	2	Bai	Trebatuak
Futbola	Ostadar KF	2	Bai	Trebatuak eta trebatu gabeak
Tenisa	Ostadar KF	2	Bai	Trebatua
Atletismoa	Lasarte-Oria KE	2	Bai	Trebatua
Gimnasia Erritmikoa	Lasarte-Oria KE	2	Bai	Trebatua
Judoa	Lasarte-Oria KE	2	Bai	Trebatua
Tenisa	Lasarte-Oria KE	2	Bai	Trebatua
Eskupilota	Intza KE	2	Bai	Trebatuak eta trebatu gabeak
Karatea	CD Senshu	2	Bai	Trebatua

ITURRIA: Norberak egina

Azkenik, modalitate bakoitzean izandako partaidetza laburbildu nahi izanda ondorengo taulan, sexua eta kirol maila kontuan izanik.

Kirol eskolen izandako partaidetza modalitatearen eta sexuaren arabera 2013/2014

	Neskak	Mutilak	GUZTIRA
Errugbia	0	30	30
Txirrindularitza	0	6	6
Igeriketa			
Tenisa	14	23	37
Futbola	6	100	106
Atletismoa			
Gimnasia Erritmikoa	39	0	39
Judoa			
Eskupilota	0	12	12
Karatea	8	21	29
GUZTIRA	67	192	259

ITURRIA: Norberak egina



## KIROLDEGIKO ESKAINTZA ETA PRAKTIKA MAILA

Kiroldegiak, bere aldetik, adin-talde honetako neska-mutilentzat ikasturte bakoitzerako ekintzak eskaintzen ditu eta baita 0-3 urte bitarteko haurrentzat ur jarduerak ere. Ondorengo taulan kiroldegiko eskaintza bakoitzaren ezaugarri nagusiak laburbiltzen dira:

### Adin-talde honetarako kiroldegiko eskaintza 2013/2014

	<b>Egutegia</b>	<b>Saioen iraupena</b>	<b>Adina</b>	<b>Azalpena</b>	<b>Pertsona kop., gehienez</b>
<b>Igeriketaren Ikaskuntza</b>	Irailetik ekainera	35 minutu	3-7	Ikastaroak maila ezberdinen arabera antolatzen dira.	8-10 lagun
<b>Kirolezko ludoteka</b>	Irailetik ekainera	45 minutu	3-7	Uretako eta lehorreko ekintzak. 1, 2 edo 3 saio astean aukeran, astelehenetik ostiralera.	15 lagun
<b>Ur jarduerak haurtxoekin</b>	Urritik-abendura Urtariletik-martxora Apiriletik-ekainera	30 minutu	0-3	Ikastaro bakoitzak 12 saio ditu. Larunbatetan burutzen dira.	8 haur
<b>Jokoak eta kirola</b>	Opor garaian: Gabonak Aste Santua	3 ordu egunero	8-12	Opor garaian kirol ezberdinak egiteko aukera eta udalerriko ingurune naturala (mendi irteerekin) ezagutzeko aukera ematen du.	20 lagun

ITURRIA: Norberak egina, Kiroldegiko memoriak oinarri hartuta

Ikastaroetako saioak Bizkortzen enpresako begirale trebatuek gidatzen dituzte eta eskaintza kiroldegiko eskaintza orokorrarekin bat ematen da ezagutzera.

### Kiroldegiko eskaintzan izandako partaidetza 2013/2014

	<b>Partaidetza 2012/2013</b>	<b>Partaidetza 2013/2014</b>
<b>Igeriketaren Ikaskuntza</b>	43 talde 263 partaide	29 talde 201 partaide
<b>Kirolezko ludoteka</b>	17 talde 162 partaide	15 talde 146 partaide
<b>Ur jarduerak haurtxoekin</b>	10 talde 77 partaide	10 talde 66 partaide
<b>Jokoak eta kirola</b>	Erantzun eskasa. Ekintza bertan behera.	Erantzun eskasa. Ekintza bertan behera.

ITURRIA: Norberak egina, Kiroldegiko memoriak oinarri hartuta

## TTAKUN KULTUR ELKARTEA. ESKAINTZA ETA PRAKTIKA MAILA

Adin-talde honetako neska-mutilen aisialdirako Ttakun Kultur Elkarteak urtero programazioa kaleratzen du, bai neguan bai udaran. Aisialdirako eskaintzan 3-15 urte bitarteko neska-mutilei zuzendutako ekintza ezberdinak antolatzen dira.

Neguan zehar 5-7 urte bitartekoentzat ekintza puntualak antolatzen dira (jolasak, tailerrak...). Urritik martxora bitartean espazio itxietan antolatzen dituzte ekintza hauek eta martxotik ekainera bitartean kalera irtetzen hasten dira eguraldiak lagunduta. 8-12 urte bitartekoekin, aldiz, ostiraletan 2 orduko saioak egiten dituzte eta saio hauetan kirol eta jarduera fisikoko ekintza puntualak antolatzen dituzte batzuetan.

Udaran udaleku irekiak eta itxiak eskaintzen dituzte herriko gazteentzat. Udarako programazioaren baitan Jostakirola programa antolatzen dute. Jostakirola jolasen bidez kirol ezberdinak ezagutzeko eta praktikatzeko programa da. Programa honen egitaraua Ttakun Kultur Elkarteak Bizkortzen<sup>1</sup> enpresarekin adosten du eta saioak Bizkortzeneko begiraleek zuzentzen dituzte. Programa honez gain, 8-11 urte bitarteko neska-mutilekin mendi irteerak egiten dituzte eta bizikletan eta patinetan ibiltzera joaten dira. Udaleku itxietan 12 eguneko irteerak egiten dituzte 9-15 urte bitarteko neska-mutilekin eta irteera bakoitzean mendi ibilbide bat egiten dute.

Ttakun Kultur Elkartaren eskaintza orokorrean jarduera fisiko eta kirol ekintzen presentzia

Ondorengo irudian Jostakirola programaren ezaugarriak eta 2014ko udaran izandako partaidetza azaltzen da eta baita udaleku itxietan parte hartu duten neska-mutil kopurua ere:

JOSTAKIROLA						
Adina	Maiztasuna	Saioen iraupena	Azalpena	Partaidetza		
5-7	Astean 2 saio	1 ordu	Jolasen bidez kirola ezagutzeko jarduera.	5 urtekoak	77	204
				6 urtekoak	60	
				7 urtekoak	67	
8-11	Astean saio bat	1 ordu eta 30 min.	Jolasen bidez kirola ezagutzeko jarduera.	8 urtekoak	57	153
				9 urtekoak	35	
				10 urtekoak	34	
				11 urtekoak	27	
UDALEKU ITXIAK: Mendi ibilbideak						
Adina	Maiztasuna	Azalpena	Partaidetza			
9-15	12 egun	12 egunetan zehar mendi ibilbideak egitea.	9-10 urtekoak	52	185	
			10-11 urtekoak	52		
			12-13 urtekoak	51		
			14-15 urtekoak	30		

<sup>1</sup> Bizkortzen kirol zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa bat da eta egun kiroldegiko kirol eta jarduera fisikoko ekintzak zuzentzen eta gidatzen ditu.

## KUKUKA DANTZA ETA ANTZERKI ESKOLA. ESKAINTZA ETA PRAKTIKA MAILA

Kukuka dantza eta antzerki eskolak ikasturte bakoitzean plazaratzen du bere eskaintza: antzerkia, euskal dantza, euskal dantza sorkuntza eta dantza garaikidea. Azterketa honetan antzerkia kanpo utzi dugu eta kontuan hartutako datuak dantzari dagozkionak dira solik. Nahi duenak eskaintza bakarra aukera dezake edo nahi izanez gero, bat baino gehiago. Ondorengo taulan eskaintzaren ezaugarri orokorrak ageri dira:

Adin-talde honetarako Kukukaren eskaintza 2013/2014

Adina	Saioen maiztasuna	Begiraleak	Kuota	Erabiletako instalazioak
5-6 urte	30 min., astean behin	Trebatuak	Bai	Ikastetxeak
6 urtetik aurrera	1 ordu, astean behin	Trebatuak	Bai	Ikastetxeak

ITURRIA: Norberak egina


Partaidetzari dagokionez, ondorengo taulan azaltzen da guztia. Haur Hezkuntzatik hasi eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara bitartean, 216 neska-mutilek hartzen dute parte Kukukan. Horietatik guztietatik, %77a neskek dira eta %23a mutilak.

Jarduera bakoitzean izandako partaidetza ikasmila eta sexuaren arabera 2013/2014


		Neskek	Mutilak	GUZTIRA
Euskal dantza	HH5	32	5	37
	LH1	26	6	32
	LH2	5	21	26
	LH3	2	15	17
Euskal dantza sorkuntza	LH4	8	0	8
	LH5	24	1	25
	LH6	20		20
Dantza garaikidea	DBH1	8		8
	DBH2	23	1	24
	DBH3	14		14
	DBH4	5		5
GUZTIRA		167	49	216

ITURRIA: Norberak egina

## 2.2. 17-30 urte bitarteko herritarrak



18-30	Seniorrak Masterrak	Kirol elkarteak	Kiroldegia	Gazteria Saila	Kukuka <small>dantza eta antzerkia</small>	Sexuen elkarbizitarako zentroa
17-18 16-17	Jubenilak					



### KIROL ELKARTEAK

Udalerriko kirol elkarte ezberdinek adin-talde honetan jarduera federatua eskaintzen dute, nagusiki. Hala eta guztiz ere, atal honetan kirol elkarten eskaintza orokorra aztertzen da.

### KIROLDEGIA

Ikasturte bakoitzerako gazte eta helduen programa kaleratzen du kiroldegia.

### GAZTERIA SAILA

15-30 urte bitartekoentzat eskaintza egiten du urtero eta bertan mugimenduzko ikastaroak ere barneratzen dira.

### KUKUKA dantza eta antzerkia

Adin-talde honetan, Kukukak euskal dantza sorkuntza eta dantza garaikidea eskaintzen ditu, antzerkiaz gain.

### SEXUEN ELKARBIZITZARAKO ZENTROA

Emakumeei zuzendutako ikastaroak plazaratzen ditu urtean zehar eta, horien artean, jarduera fisikoko edo mugimenduzko jarduerak topatu daitezke.

## KIROL ELKARTEETAKO ESKAINTZA ETA PRAKTIKA MAILA

Atal honetan, Lasarte-Oriako kirol elkarten eskaintza orokorra aztertuko da, aurreko atalean ikusitako kirol eskolen eskaintza izan ezik.

Lasarte-Orian egun 12 kirol elkarte daude. Horietatik 3 elkartek modalitate bat baino gehiago eskaintzen dituzte eta elkartearen arabera ere eskaintza bakoitzak ezaugarri ezberdinak ditu. Ondorengo irudi eta tauletan eskaintza eta bakoitzean izandako partaidetza aztertzen da.

Lehenik eta behin, ondorengo taulan elkarte bakoitzak eskaintzen dituen modalitateak ageri dira eta zein adinetarako:

Kirol elkarteak, modalitateak eta eskaintza adinaren arabera 2013/2014

Kirol elkarteak	Kirol modalitatea	Kirol Eskolak (8-12 urte)	Infantilak (12-14 urte)	Kadeteak (14-16 urte)	Jubenilak (16-18 urte)	Seniorrak (18tik aurrera)
Buruntzaldea Igeriketa Taldea	Igeriketa					
Buruntz-Azpi	Ehiza eta arrantza					
Buruntzazpi Txirrindularitza Eskola	Txirrindularitza					
CF Texas	Futbola					
Eguzki Areto Futbola	Areto Futbola					
Intza KE	Eskupilota					
Kenpo	Kenpo					
Lasarte-Oria Kirol Elkarteak	Atletismoa					
	Gimnasia Erritmikoa					
	Judoa					
	Tenisa					
	Mahaiko Tenisa					
Ostadar-Saiarre Kirol Taldea	Futbola					
	Saskibaloia					
	Tenisa					
	Txirrindularitza					
	Atletismoa					
	Bolo eta Toka					
	Errugby-a (Beltzak)					
	Areto Futbola					
Mendia						
Saiatuz Txirrindulari Taldea	Txirrindularitza					
	Triatloia					
Santa Ana Pala Txapelketa	Pala					
Senshu Kirol Elkarteak	Karatea					

ITURRIA: Norberak egina

Aurreko taulan ageri den bezala, batzuk kirol eskoletatik hasi eta senior maila arteko eskaintza dute, beste batzuk soilik senior mailako kirolariak dituzte eta, azkenik, beste batzuk, soilik goiko kategorietan dabilzan kirolari federatuak.

Behin zein publikori zuzentzen diren aztertuta, elkarte bakoitzaren eskaintza 4 adierazle nagusiren arabera aztertuko da: entrenamendu saioen arabera, kuotaren arabera, elkarteek entrenatzaile edo begirale trebatuak dituzten ala ez saioak gidatzeko eta, azkenik, bakoitzak erabiltzen dituen instalazioen arabera:

### Elkarteek egiten dituzten eskaintzen ezaugarri orokorrak

		<b>Entrenamendu saioak</b>	<b>Kuota</b>	<b>Entrenatzaile trebatuak</b>	<b>Erabilitako kirol instalazioak</b>
<b>Buruntzaldea Igeriketa Taldea</b>		Taldearen arabera	Bai	Trebatuak	Kiroldegia
<b>Buruntz-Azpi</b>		-		-	-
<b>Buruntzazpi Txirrindularitza Eskola</b>		Taldearen arabera	Ez	Trebatuak	-
<b>CF Texas</b>		3 saio astean	Bai	Trebatuak eta gabeak	Mitxelin
<b>Eguzki Areta Futbola</b>		2 saio astean	Bai	Trebatua	Kiroldegia
<b>Intza KE</b>		1 edo 2 saio astean	Bai	Trebatuak eta gabeak	Mitxelin
<b>Kenpo</b>		3 saio			Kiroldegia
<b>Lasarte-Oria Kirol Elkartea</b>	Atletismoa		Bai		
	Gimnasia Erritmikoa		Bai		Kiroldegia
	Judoa		Bai		Kiroldegia
	Tenisa		Bai		Mitxelin
	Mahaiko Tenisa		Bai		
<b>Ostadar-Saiarre Kirol Taldea</b>	Futbola	2 edo 3 saio astean	Bai	Trebatuak eta gabeak	Mitxelin
	Saskibaloia	3 saio astean	Bai	Trebatuak eta gabeak	Kiroldegia
	Txirrindularitza	-	Bai	-	-
	Atletismoa	-	Bai	-	Mitxelin
	Bolo eta Toka	-	Bai	-	Bolatokia
	Errugby-a	1 edo 2 saio astean	Ez	Trebatuak eta gabeak	Mitxelin
	Areta Futbola	2 saio astean	Bai	Trebatua	Kiroldegia
	Mendia	-	Bai	-	-
<b>Saiatuz Txirrindulari Taldea</b>	Txirrindularitza	-	Bai	-	-
	Triatloia	-	Bai	-	-
<b>Santa Ana Pala Txapelketa</b>	Pala	-	Bai	-	Frontoia
<b>Senshu KE</b>	Karatea	2 edo 3 saio astean	Bai	Trebatuak	Kiroldegia

ITURRIA: Norberak egina

Azkenik, elkarte bakoitzean dabilen kirolari kopurua zehazten da ondorengo taulan, sexuaren eta kirol mailaren arabera:

Elkarteko kirolari kopurua, sexuaren eta kirol mailaren arabera 2013/2014

		Emakumeak				Gizonak			
		Infantilak	Kadeteak	Jubenilak	Seniorrak	Infantilak	Kadeteak	Jubenilak	Seniorrak
<b>Buruntzaldea Igeriketa Taldea</b>									
Buruntz-Azpi		0	0	0	0	8	3	8	0
Buruntzazpi Txirrindularitza Eskola		0	0	0	0	5	4	5	0
CF Texas		0	0	0	0	0	0	22	23
Eguzki Areto Futbola		0	0	0	0	0	0	0	17
Intza KE		0	0	0	0	1	2	3	10
Kenpo									
Lasarte-Oria Kirol Elkartea	Atletismoa	1	2	4	0	1	2	5	3
	Gimnasia Erritmikoa								
	Judoa	0	0	0	0	0	1	5	9
	Tenisa	0	0	0	2	0	0	0	11
	Mahaiko Tenisa	0	0	0	1	1	1	0	3
Ostadar-Saiarre Kirol Taldea	Futbola	0	0	0	20	56	62	43	47
	Saskibaloia	0	7	10	0	0	0	0	0
	Txirrindularitza	0	0	0	0	0	0	17	0
	Atletismoa	0	0	0	10	0	0	0	60
	Bolo eta Toka	0	0	0	1	0	0	0	8
	Errugby-a	0	0	0	0	24	0	16	0
	Areto Futbola	0	0	0	0	0	0	0	150
	Mendia	0	0	0	15	0	0	0	60
Saiatuz Txirrindulari Taldea	Txirrindularitza	0	0	0	0	0	0	0	25
	Triatloia	0	0	0		0	0	0	
Santa Ana Pala Txapelketa	Pala	0	0	0	0	0	0	0	24
Senshu KE	Karatea	0	2	1	1	0	3	3	6
<b>GUZTIRA</b>		<b>1</b>	<b>11</b>	<b>15</b>	<b>50</b>	<b>96</b>	<b>78</b>	<b>127</b>	<b>448</b>

ITURRIA: Norberak egina



## KIROLDEGIKO ESKAINTZA ETA PRAKTIKA MAILA

Kiroldegiak gazte eta helduentzako programa plazaratzen du, ikasturte bakoitzerako prestatutako eskaintzarekin. Eskaintza honetan 17-30 urte bitarteko bizilagunek hartzen dute parte baina baita 31-65 urte bitartekoek ere. Kiroldegiko datuak ezin izan dira adin-talde hauen arabera bereizita lortu, horrenbestez, kiroldegiko eskaintza orokorra eta azken ikasturtean izandako partaidetza hurrengo adin-taldearekin hurrengo atalean aztertuko da.

## JALGUNE ELKARTEKO ESKAINTZA ETA PRAKTIKA MAILA

Jalgune aisialdi elkarteko kideak ezintasun intelektuala duten pertsonak osatzen dute. Astean lau bider biltzen dira eta ekintza ezberdinak burutzen dituzte eta, horien artean, badira kirol eta jarduera fisikoarekin zerikusia dutenak ere.

Elkarteko kideak astegunetan hiru bider elkartzen dira, bi orduz, eta larunbat arratsaldetan bost orduz. Hasiera batean, igeriketako saioak eta pistako jarduerak burutzen zituzten baina denborarekin uzten joan ziren. Arrazoi nagusia, elkarteko kideak era antolatu batean joateko zailtasunak izan ziren. Adibidez, bost lagun ziren igerilekura joaten zirenak, baina guztiak egun berdinean eta ordutegi berean koinziditzeko zailtasunak zituzten.

Horregatik, gaur egun, jarduera fisiko edo mugimenduzko jarduerak burutzen dituzte baina ez jarduera antolatuetan, hau da, elkartzen direnean antolatutakoak izan ohi dira. Udaran, adibidez, frontoira eta parke biosasungarrira joan ohi dira eguraldi ona egiten duenean eta Sasoetako gimnasioan ere jarduerak egin ohi dituzte. Aurrera begira badute berriro igerilekura joateko asmoa baina nola koordinatu azertu behar dute.

## KUKUKA ELKARTEKO ESKAINTZA ETA PRAKTIKA MAILA

Kukukak gazte eta helduentzako duen eskaintza euskal dantza sorkuntza eta dantza garaikidea dira, antzerkiaz gain. Jarduera hauek astean behin, ordubetez, eskaintzen dira eta, horretarako, espazio ezberdinak erabili ohi dituzte talde ezberdinen arabera: ikastetxeak, kultur etxea edo gaztelekua.

Kukukak dantzarako gazte eta helduentzako kaleratzen duen eskaintza

Adina	Saioen maiztasuna	Begiraleak	Kuota	Erabilitako instalazioak
<b>Gazteak</b>	1 ordu, astean behin	Trebatuak	Bai	Ikastetxeak Kultur Etxea Gaztelekua
<b>Helduak</b>				

ITURRIA: Norberak egina

Gazte eta helduen partaidetza datuak ezin izan dira adinaren arabera lortu, beraz, atal honetan Kukuka eskolak gazte eta helduen partaidetza guztia aurkezten da:

Kukukak gazte eta helduentzako kaleratzen duen eskaintza

		Neskak	Mutilak	GUZTIRA
<b>Gazteak</b>	Garaikidea	15	1	16
	Sorkuntza	16	2	18
<b>Helduak</b>	Garaikidea	36	2	38
	Sorkuntza	8		8
<b>GUZTIRA</b>		<b>75</b>	<b>5</b>	<b>80</b>

ITURRIA: Norberak egina

Kukukako dantzako eskaintzan 300 bat lagunek parte hartzen duten arren, beste 300 lagun aritzen dira gutxi gorabehera urtero antzerkian. Guztira, beraz, 600 lagunentzako eskaintza antolatzen du urtero elkarte honek.

## SEXUEN ELKARBIZITZARAKO EMAKUMEEN ZENTROAREN ESKAINZA ETA PRAKTIKA MAILA

Lasarte-Oriako Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroak ikasturtean zehar eskaintza ezberdina egiten du. Ikasturte guztian zehar antolatzen dira jarduerak eta ikasturte bakoitzeko eskaintza urteko bi garai ezberdinetan plazaratuko dute, nagusiki: irailtik urtarrilera eta urtarriletik ekainera bitartekoa. Hala eta guztiz ere, posible da ekintza puntualak edo jarduera berriak ikasturteko edozein garaietan antolatzea eta kaleratzea ere.

Jardueren artean mugimenduzko edo jarduera fisikoko ekintzak antolatzen dira. Jarduerak formatu ezberdinak izan ditzakete (tailerrak, ikastaroak, jardunaldiak, e.a) eta maiztasuna ere jarduera eta formatuaren arabera da (astean behin hiru hilabetez, 4 saiotako ikastaroa, e.a.).

Ikastaroak gidatzen dituztenak begirale trebatuak izaten dira eta, gehienetan, zentroan bertan burutzen diren arren, jarduera motaren arabera, kiroldegian edo kultur-etxean ere burutzen dira zenbait. Jarduera edo ekintza hauek batzuetan dohainik izan ohi dira eta beste batzuetan, aldiz, kuota edo prezio bat izaten dute begiralearen arabera. Begiralea bolondres moduan ari bada, ekintzak ez du koutarik izaten eta kontrako kasuan, kuota izaten dute.

Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroak kaleratzen dituen jardueren ezaugarri nagusiak

Adina	Saion maiztasuna eta iraupena	Begiraleak	Kuota	Erabiletako instalazioak
<b>18 urtetik gorakoei, nagusiki</b> (adina ez da ezinbesteko irizpidea)	Jardueraren arabera	Trebatuak	Jardueraren arabera (bai ala ez)	Sexuen elkarbizitzarako zentroa, nagusiki. Kiroldegia Kultur Etxea

### ITURRIA: Norberak egina

Antolatzen dituzten ekintzen artean, batzuk ohiko ekintzak dira, urtero antolatzen dituztenak; beste batzuk, ekintza berriak dira; eta beste zenbait zentroak antolatu eta eskaintzen dituenak baina erabilera autonomoa dutenak.

Partaidetza datuei dagokienez, ondorengo tauletan 2014ko partaidetza guztia hartu da kontuan, adinaren arabera partaidetza lortzea ezinezkoa izan baita. Orokorrean, zentroan parte hartzen duten pertsonen profila 50 urtetik gorako emakumeak dira. Bai emakume bai gizonei zuzenduta dauden arren, lehengo urtean gizon bakar batek hartu zuen parte ekintza hauetan guztietan.

### Urtarrila-Apirila bitartean eskainitako ikastaroak 2014

	APUNTATU ZIREN PERTSONA KOPURUA	ONARTUTAKO ZERRENDA
<b>OHIKO IKASTAROAK</b>		
Aerobic	7	7
Batuka	25	20
Sabel dantza	9	9
Pilates	22	12
Taichi	18	18
Yoga (1)	11	11
Yoga (2)	15	15
<b>IKASTARO BERRIAK</b>	Mugimenduzkoak ez dira antolatu	
<b>ERABILERA AUTONOMOA</b>	Batukako taldea	

ITURRIA: Norberak egina

Izena ematen duten pertsonak aukera dute nahi adina ekintzetan apuntatzeko baina zentroko langileak, ekintza bakoitza egiteko dagoen espazioaren arabera, gehienez zenbat lagunek parte har dezaketen erabakitzen du. Horregatik, ekintza batean baino gehiago izena emanaz gero, zein ekintzetan nahigo duen parte hartu zehaztu behar du bakoitzak. 2014 urtean, guztira, 184 bat pertsonak hartu zuten parte ekintza ezberdinetan.

### Maiatza-Ekaina bitartean eskainitako ikastaroak 2014

	APUNTATU ZIREN PERTSONA KOPURUA	ONARTUTAKO ZERRENDA
<b>OHIKO IKASTAROAK</b>		
Biodantza	7	7
Zumba	21	21
Sabel dantza	9	9
Pilates	19	12
Taichi	18	18
Yoga	15	15
<b>IKASTARO BERRIAK</b>	Mugimenduzkoak ez dira antolatu	
<b>ERABILERA AUTONOMOA</b>	Batukako taldea	

ITURRIA: Norberak egina

### 2.3. 31-65 urte bitarteko herritarrak



Adina      Kirol kategoria      Jarduera Fisiko eta Kirol eskaintza 31-65

31-65	Seniorrak Masterrak	Kirol elkarteak	Kiroldegia	Kukuka dantza eta antzerkia	Sexuen elkarbizitzarako emakumeen zentroa
-------	------------------------	-----------------	------------	--------------------------------	--



### KIROL ELKARTEAK

Aurreko atalean aurkeztu bada ere, elkarteek master mailako kirolariak ere badituzte, kirol elkarteko kide direnak eta proba herrikoetan parte hartzen dutenak edo entrenamendu saioak egiten dituztenak.

### KIROLDEGIA

Ikasturte bakoitzerako gazte eta helduen programa kaleratzen du kiroldegia.

### KUKUKA dantza eta antzerkia

Adin-talde honetarako ere Kukukak urtero bere eskaintza kaleratzen du. Bai eskaintza bai partaidetza datuak ere, ordea, aurreko atalean txertatu dira, datuak ezin izan baitira adinaren arabera lortu.

### SEXUEN ELKARBIZITZARAKO EMAKUMEEN ZENTROA

Zentroak 18 urtetik gorakoentzat antolatzen ditu mugimenduzko ekintzak. Partaidetza datuak adinaren arabera ezin izan dira lortu, beraz, aurreko atalean zehaztu dira bai eskaintza eta baita ekintzetan dagoen praktika maila ere.



## KIROLDEGIKO ESKAINTZA ETA PRAKTIKA MAILA

Kiroldegiak ikasturte bakoitzerako gazte eta helduentzako ekintza programa kaleratzen du. Ikastaroak irailtik ekainera bitartean burutzen dira eta saioen maiztasunari dagokionez, aukera ezberdinak daude: ohikoena astean saio bat edo bina saio burutzea izaten da. Hau erabakitzeko, eskaerari begiratzen zaio. Jarduerak burutzeko, kuota bat ordaintzen da (kiroldegiko bazkide izan ala ez) eta saioak azpikontratatura dagoen enpresako begiraleek gidatzen dituzte.

Ondorengo irudian 2013/2014 ikasturteari dagokion eskaintza azaltzen da:

### Kiroldegiko eskaintzaren ezaugarri nagusiak

	Egutegia	Saioen maiztasuna	Kuota	Begiraleak	Erabilitako instalazioak
<b>Mantenimenduko Gimnastika</b>	Irailtik ekainera	Astean 1 edo 2	Bai	Trebatuak	Kiroldegia
<b>Banakako entrenamendua</b>	Irailtik ekainera	Astelehenetik Ostegunera	Bai	Trebatuak	Kiroldegia
<b>Igeriketaren ikaskuntza</b>	Irailtik ekainera	Astean 5,,3,2	Bai	Trebatuak	Kiroldegia
<b>Entrenatzeko gida – Igeriketa gidatua</b>	Irailtik ekainera	Astelehenetik Ostiralera	Ez	Trebatuak	Kiroldegia
<b>Aquagim</b>	Irailtik ekainera	Astean 1 edo 2	Bai	Trebatuak	Kiroldegia
<b>Aquaerobik</b>	Irailtik ekainera	Astean 2	Bai	Trebatuak	Kiroldegia
<b>Aerobika</b>	Irailtik ekainera	Astean 2	Bai	Trebatuak	Kiroldegia
<b>Body Pump</b>	Irailtik ekainera	Astean 2	Bai	Trebatuak	Kiroldegia
<b>Konbi</b>	Irailtik ekainera	Astean 2	Bai	Trebatuak	Kiroldegia
<b>Txirrindularitza (indoor)</b>	Irailtik ekainera	Astean 2	Bai	Trebatuak	Kiroldegia
<b>Pilates</b>	Irailtik ekainera	Astean 2	Bai	Trebatuak	Kiroldegia
<b>Nagusien parkea</b>	Irailtik ekainera	Astean 1	Ez	Trebatuak	Parke biosasungarria

ITURRIA: Norberak egina, Kiroldegiko memoriak oinarri hartuta


Ondorengo taulan eta irudian 2013/2014 ikasturtean jarduera bakoitzean izandako partaidetza zehazten da. Guztira, 617 lagunek hartu dute parte jarduera ezberdinetan. Jardueren arabera, arrakasta gehien izan dutenak pilates, indoor txirrindularitza eta aerobika izan dira, bakoitzean gutxi gorabehera 130 bat lagunek hartu baitute parte urte guztian zehar jarduera hauetan.

Kiroldegiko eskaintzan izandako partaidetza 2013/2014

Jardueraren araberako partaidetza	Lagun kopurua
Mantenimenduko Gimnastika	57
Banakako entrenamendua	2
Entrenatzeko gida – Igeriketa gidatua	4
Aquagim	59
Aquaerobik	7
Aerobika	107
Body Pump	38
Konbi	8
Txirindularitza (indoor)	164
Pilates	123
Zumba	48
GUZTIRA	617

ITURRIA: Norberak egina, Kiroldegiko memoriak oinarri hartuta

Kiroldegiko eskaintzan izandako partaidetza (%) 2013/2014




ITURRIA: Norberak egina, Kiroldegiko memoriak oinarri hartuta



Ikasturte bakoitzean, jarduerak antolatu eta saioak burutzeaz arduratzen den enpresak, inkestak egiten dizkie parte hartzaileei beraien iritzia jasotzeko bai jardueraz bai kiroldagiko alderdi ezberdinen inguruan. Ondorengo irudian, 2013/2014 ikasturtean erabiltzaileei eginiko inkesten emaitzak ageri dira.

Emitza onenak begiraleei dagokiena eta begiraleek egiten duten hizkuntzen erabilerrari dagokiena izan dira. Aldiz, emitza kaxkarrenak, jarduerak egiteko espazioak jasotakoa, jardueretan erabiltzen den materialari dagokiona eta jardueren inguruan jasotako informazioari dagozkie.

Jardueretan parte hartu dutenei eginiko inkesten emaitzak 2013/2014



ITURRIA: Norberak egina, Bizkortzenen inkestak oinarri hartuta

## 2.4. 65+ urte bitarteko herritarrak



Adina      Kirol kategoria      Jarduera Fisiko eta Kirol eskaintza **65+**

65+	Masterrak	Biyak bat	Parke biosasungarria	Ondo ibili - Caminar es salud
-----	-----------	-----------	----------------------	----------------------------------



#### BIYAK BAT

Adinekoen elkarteak Lasarte-Orian eskaintza zabala du adinekoentzat, horien artean jarduera fisikoko ekintzak

#### ONDO IBILI-CAMINAR ES SALUD

Erakunde ezberdinetako sailak lankidetzan, adinekoentzat ibilbide osasungarrien egitaraua martxan jartzera doaz zahartzaro **aktibo baten alde**, "Ondo ibili – Caminar es salud" programa izenekoa.

#### KIROLDEGIA

Kiroldegi pareko parkean ariketa fisikoa egiteko aparatu osasungarriak daude adineko pertsonentzat. Kiroldegiak antolatuta, begirale batek gidatuta saioak egiten dira bertan.

## “BIYAK BAT” ELKARTEAREN ESKAINTZA ETA PRAKTIKA MAILA

Lasarte-Oriako adinekoen elkarteak ekintza ugari antolatzen ditu urtean zehar eta, horien artean, jarduera fisikoko ekintza batzuk ere topatu daitezke, elkarteko kideen artean zahartzaro aktiboak sustatzeko asmoz.

Elkarteak berak antolatzen ditu saioak eta eskaintza ezagutzera emateko antolatzaileek, nagusiki, elkartean bertan jartzen dituzte kartelak eta noizik eta behin Txintxarri aldizkarian ere ematen dituzte ezagutzera.

Jarduera fisikoko ekintza nagusiak ondorengoak dira: dantza, gimnasia eta yoga.

**Dantza: “Baile en línea” antolatzen dute urtean zehar eta asteen bi orduko bi saio egiten dituzte.** Elkartean egiten dute eta bertan aretoa goraino betetzen da eta txiki geratzen da adinekoen eskaera hau asetzeko. Guztira, 60 bat lagun aritzen dira baina elkartekoen iritziz areto handiago bat erabiltzeko aukera izango balute jende gehiago arituko litzateke. Saioak gidatzeko begirale trebatu bat kontratatzen dute eta partaideek urteko kuota ordaintzen dute jarduera egin ahal izateko eta, bide batez, langile honen soldata ordaintzeko.

Igande eta jai egunetan elkartean bertan ere dantza saioak antolatzen dituzte eta adineko ugari biltzen dira, batez ere, emakumeak.

Gimnasia: Adinekoek antolatu eta adinekoak zuzendutako saioak izan ohi dira. Urteko jarduera honetan, astero ordubeteko 4 saio egiten dituzte kiroldegiko pistan. 2013/2014 ikasturtean gutxi gorabehera saio bakoitzean 30 lagunek hartu zuten parte eta, guztira, 158 saio egin zituzten.

**Yoga: Asteen ordu t'erdiko bi saio egiten dituzte, begirale trebatu batekin eta aretoak, kasu honetan, tamaina ona du ez baita guztiz betetzen.**

Uretako gimnasia ere antolatzea gustatuko litzaike baina egun kiroldegiak duen espazio libre falta dela eta, ezinezkoa izan zaie antolatzea, kiroldegiarekin saiakerak egin dituzten arren.

Antolatzen dituzten beste ekitaldi batzuen artean, urtean behin Zahartzarolari Omenezko Astea antolatzen dute eta, besteak beste, Ibilialdi Neurtua antolatzen dute. Elkarteko kide askok hartzen dute parte proba honetan.

Horrez gain, festetan pare bat erakustaldi antolatzen dituzte: gimnasiako saio bat eta dantza saio bat. Lehenengoa kiroldegian egiten dute eta bigarren jarduera kalera atera eta bertan egin ohi dute. Azkenik, tokan aritzen den talde bat ere badute eta urtean pare bat aldiz tokako txapelketa antolatzen dute kalean.

Ekintza hauetan guztietan partaidetza nagusiki emakumeena da baina elkarteko kideen ustez emakumeak aktiboagoak dira eta gehiago aritzen dira antolatutako jardueretan. Gizonak, ordea, antolatu gabe egiten dute jarduera fisikoa. Horrela, egunero askoz gizon gehiago ibiltzen omen da pasieran kalean edo ingurune naturaleko ibilbideetan emakumeak baino.

Eskaeren artean bi nabarmentzen dituzte elkarteko kideek. Batetik, Lasarte-Oriatik Donostiara joateko bidegorria bukatuta ez egotea tamalgarria dela diote, askoz jende gehiago ibiliko bailitzateke egunero pasieran edo bizikletan, batez ere, udara partean. Eta, bestetik, kiroldegia oso txikia geratu dela diote, egungo ekipamendu eta espazioekin kiroldegiak ez baitu dagoen eskaera guztia asetzen.

## PARKE BIOSASUNGARRIA – KIROLDEGIA

Kiroldegi parean adinekoen parke biosasungarria dago, jarduera fisikoa egiteko 11 bat aparaturekin. Adinekoak bertara joan daitezke nahi dutenean eta ariketa fisikoa egin dezakete nahi duten orduan, nahi duten maiztasunarekin.

Egun, ordea, ez dute askok erabiltzen eta jarduera hau sustatzeko asmoz, hain zuzen, kiroldegiak asteroko saioak antolatu ditu adinekoentzat parkean bertan. Astean behin kiroldegiko jarduerak zuzentzen dituen begirale trebatu batek ordubeteko saioa gidatuko du parkera gerturatutako adinekoen aparatuek nola erabili azaltzeko eta saioak dinamizatzeko.

## “ONDO IBILI – CAMINAR ES SALUD” PROGRAMA

Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoak, Lasarte-Oriako Osasun Zentroak, eta Udaleko kirol, hirigintza eta gizarte zerbitzuetako sailak herriko elkarte batzuekin elkarlanean eginiko egitaraua da “Ondo ibili – Caminar es Salud”, beste udalerrri batzuetan Ttipi-Ttapa izana daraman programa.

Programa zehazteko egin diren dinamiketan ibilbide ezberdinak diseinatu dira, adinekoentzat egokiak direnak eta hurrengo irudian zehazten direnak. Irteerak ostiraletan egingo dira, goizeko 11etan abiatuta. Helburua etxean edo baztertuta dauden adinekoak kalera atera eta pasieran ibiltzea da. Programaren baitan, batetik ibilbide osasungarriak diseinatu dira baina eskaintza honetan adinekoentzat dagoen parke biosasungarria ere gaineratu da, bertara joan eta ariketa ezberdinak egin ditzaten.

Saioen gidaritza edo koordinazioa txandakatuz joango da. Guztira, programa gauzatzeko, 6 elkarte, 10 bat bolondres eta Osasun Zentroko erizainak aritu dira eta saioak ere beraiek gidatu eta koordinatuko dituzte. Lehenengo egunetan, erizainak beraiekin joatea aurreikusten da.

“Ondo ibili – Caminar es salud” programarako diseinatutako ibilbideak



ITURRIA: Lasarte-Oriako Udala

Horrela, alde batetik, eskuorri informatibo bat atera da informazio guztia eskainiz (helburua, ibilbideak, parkeko aparatu bakoitza zertarako den, eguna eta ordua, e.a.) eta, bestetik, errezeta gisa balioko duen paper bat.

Errezeta hau, nagusiki, Osasun Zentroko medikuek beraien adineko pazienteen artean errezetatuko dute. Hau da, medikuek botikak errezetatzen dituzten bezalaxe beraien pazienteei pasieran ibiltzea **errezetatuko die eta “Ondo ibili – Caminar es salud” errezeta** banatuko die.

Ostiraletan taldea ibiltzera joaten denean adinekoek medikuak emandako errezeta edo paper hori eraman eta saioa emaitzean zigilua jarriko zaie, egun bakoitzean eginiko ibilbidea ziurtatzeko. Ondoren, adineko pertsona berriro medikuarenera doanean errezeta hau erakutsi hala izango dio, medikuak berak ikusi dezan.



Egun bakoitzean eginiko ibilbidea ziurtatzeko errezeta



ITURRIA: Lasarte-Oriako Udala

## 3. Kirol jarduerak eta jarduera fisikoaren sustapena

### 3.1. Elkartek: kirola, kultura eta aisialdia

Aurreko atalean, kirol eta jarduera fisikoko eskaintza eta praktika maila aztertzeke aipatu diren arren, Lasarte-Oriako elkarte ezberdinen inguruko deskribapen labur bat egingo da, elkarte bakoitzaren funtzionamendua eta ezaugarriak ezagutzeko asmoz.

Aztergai izan diren esparruak ondorengoak dira: antolaketa arloa, elkarteko eguneroko dinamika eta eguneroko lanak zeintzuk diren eta zenbat lagunen artean banatzen diren ezagutzeko; komunikazioa, elkarteko jarduera nola helarazten duten jakiteko; ekonomika arloa, diru iturri eta gastu orokorrak ezagutzeko; eta, azkenik, kirol arloa, talde edo kirolari kopurua ezagutzeko, erabiltzen dituzten instalazioak eta ekipamendua ezagutzeko eta herrian antolatzen dituzten beste kirol ekitaldi batzuk ezagutzeko.

Kirol elkarteez gain, Ttakun Kultur Elkarteko deskribapen labur bat ere egiten da, eskola kirolarekin duen harremana zehaztuz eta, azkenik, Kukuka dantza eta antzerki eskolako ere, dantza kirol edo ariketa fisikoko jarduera baita.

Atal honen amaieran taula batean elkarte ezberdinek beraien egunerokotasunean jarduerak antolatzeko dituzten oztopo edo beharrak laburbildu dira.

#### BURUNTZAZPI TXIRRINDULARITZA ESKOLA

Eskolak bere jarduera Lasarte-Oria eta Usurbilen burutzen du. Txirrindularien maila bakoitzerako elkarteak arduradun bat du eta bera aritzen da lan teknikoetan. Egun mutilak bakarrik aritzen dira elkartean.

Urtero, denboraldi hasieran, jarduera promozionatze aldera txirrindularitza eskolak izen emate deialdia prensa bidez zabaltzen du.

Ekonomikoki, babesleen diru-sarrerak dira elkarteko diru-iturri nagusia. Egungo egoeran 2014/2015 ikasturterako bi babesle ezingo dira mantendu eta, ondorioz, elkartearen bideragarritasuna eta jarduera kolokan dago.

Kirolarien jardueraren koste guztiak elkarteak bere gain hartzen ditu, lasterketetara eramatea izan ezik. Lasterketetara eramateaz gurasoak arduratzen dira. Kirolari bakoitzak bere bizikleta du eta beharrezko ekipamendua elkarteak ematen dio (arropa da ekipamendu nagusia, bai udarakoa bai negukoa).



Entrenamendu saioetarako elkarteak Usurbilgo gimnasioa erabiltzen du eta, horretarako, txirrindulariek kirolegiko bazkide izan behar dute. Lasarte-Orian elkarteak lokala du, bilerak egiteko eta lan administratiboetarako.

Elkarteak, bestalde, denboraldian zehar alebin eta infantilentzako lasterketa bat antolatzen du eta antolaketa 15 bat lagunek hartzen dute parte. Azpiegitura eta arrazoi ekonomikoak medio, elkarteak ezin ditu lasterketa gehiago antolatu.

## CLUB DE FUTBOL TEXAS

50 urteko historia duen futbol taldea da CF Texas. Zazpi pertsonak osatzen badute ere Zuzendaritza Batzordea, eguneroko izapideez eta lan administratiboez bakarria arduratzen da, nagusiki. Horrez gain, pertsona bat dago lan komunikatiboak egiteko ardura duena (kartelak, bereziki) eta bi entrenatzaile eta laguntzaile daude, bakoitzetik bana talde bakoitzean. Elkarteak talde bakoitzeko entrenatzaileari ordainsari bat ematen dio eta berak erabakitzen du laguntzailearekin banatu ala ez.

Partiduak ezagutzera emateko kartelak dira elkartearen komunikazio tresna nagusia denboraldi bakoitzean. Elkartearen jardura ezagutzera emateko, ordea, Ate Irekien jardunaldiak antolatzen dituzte bi astez eta nahi duenak proba egin dezake elkartean. Horrez gain, Diario Vasco egunkarian ere argitaratzen da albistea.

Partiduetara joateko garraioari dagokionez, joan behar diren herrira dagoen distantzia erabiltzen dute irizpidetzat. Hau da, kilometroen arabera jokalariai beraien gurasoekin joaten dira edo elkarteak autobusa jartzen du.

Arlo ekonomikoan, jokalariai bakoitzak bere fitxaren zati bat ordaintzen du urtean eta beste gastu guztiez elkarkea bera arduratzen da. Horretarako, elkarteak diru-iturri ezberdinak ditu: kartela (diru sarrera nagusia elkartean), Real Sociedad SADrekin duen hitzarmena eta Udalaren diru-laguntzak.

Kirol arloan, elkarteak egun mutilen bi talde ditu eta eskaintza mutilei zuzenduta dago. Elkarkea irekia dago nesken taldea osatzeko eta bere garaian saiakera egon zen guraso batzuen aldetik baina ez zen aurrera atera. Nesken taldea ateratzeko antolaketa arloa indartu beharko litzateke, proiektua gauzatzeko eta eskaintza sendoa egin ahal izateko. Gaur egungo baliabideekin, ordea, elkarteak ezin du lan hau guztia bere gain hartu.

Taldeek Mitxelingo futbol zelaia erabiltzen dute entrenatzeko eta partiduak jokatzen. Talde bakoitzak astean 3 egunetan egiten ditu entrenamenduak, ordubete inguruak, Mitxelingo zelai erdia erabiliz.

## EGUZKI ARETO FUTBOLA

Senior mailako jokalariez osatuta, Gipuzkoako mutilen lehenengo mailan aritzen den talde bakarra du egun taldeak, Ventanas ISU taldea, hain zuzen. Horretarako, 2 pertonez osatutako lan taldea du elkarteak: bata, lan administratiboez arduratzen da nagusiki, lan teknikoetan laguntzen badu ere eta, bestea, entrenatzaile lanetan aritzen da. Taldeko beste kideekin batera partiduetara joateko garraioaz arduratzen dira. Herrian antolatzen diren ospakizun ezberdinetan lankidetzan aritzen dira herriko beste elkarteekin urtean zehar.

Elkarteak ez du denboraldi berri bakoitzean promozio edo komunikazio ekintza berezirik egiten baina Facebook eta Twitter sare sozialetan kontu bana du, elkarteko albisteak eta emaitzak ingurukoei ezagutzera emateko. Areto futbola tradizio handiko modalitatea da udalerrian eta oihartzun handia izan ohi du.

Elkartean, jokalaria bakoitzak urteko bere fitxa eta kiroldegiko abonoa ordaintzen ditu eta jokatzeko beharrezkoa den ekipamendua (arropak eta baloiak, nagusiki) patrozinio bitartez lortzen dute. Egun patrozinatzaile bakarra dute eta, arlo ekonomikoa egonkortzeko, beste patrozinatzaile bat izatea lagungarri lukete, kartelak ateratzeko, adibidez.

**Kirol arloari dagokionez, astean ordu t'erdiko bina saio egiten dituzte, astelehen eta asteazkenetan, kiroldegiko balio anitzeko pistan, 20:00etatik 21:30ak bitartean. Partiduak, aldiz, larunbat arratsaldetan jokatu ohi dituzte eta batzuetan kiroldegiak utzita ostiral arratsaldetan ere jokatu izan dute.**

## INTZA KIROL ELKARTEA

Intza Kirol Elkarteak eskupilota eskaintzen die udalerriko mutilei. Horretarako, 11 pertonez osatutako Zuzendaritza Batzordea duen arren, egunerokotasunean 3 pertsona aritzen dira elkarteko lan administratiboak eta teknikoak egiten. Horietatik bat, lan administratiboez eta epaile lanetan aritzen da; beste bat, lan teknikoetan eta epaile; eta, azkenik, hirugarrena teknikari gisa aritzen da mutilekin. Bestalde, pilotarien gurasoak mutilak partiduetara eramateaz arduratzen dira.

Denboraldi hasieran, Diario Vasco eta Txintxarrin elkarteko eskaintzarekin albisteak kaleratzen da baina ez da bestelako ekintza komunikatiborik egiten eskaintza ezagutzera emateko.

Kirol elkarteak, elkarte gastronomiko baten parte da eta bertako bazkideen kuotaren zati bat elkartearentzat bideratzen da. Guztira, egun 144 bazkide daude. Beheko mailako mutilek kuota bat ordaintzen dute denboraldiko eta federatuek, aldiz, lizentzia federatuak duen kostea. Pilotarien ekipamendua patrozinio bitartez lortzen dute.

Elkarteak eskupilotako eskaintza egiten du, bai maila federatuan eta baita beheko mailetan ere, eskupilota eskola baitu. Horrez gain, eskola kirolarekin ere lankidetzan aritzen da. Bi teknikari daude, entrenamenduak gidatzeko, eta bi epaile, Lasarte-Orian jokatzen dituzte partidukoak

zuzentzeko. Eskolan aritzeko, irailan, probatzeko aukera eskaintzen du elkarteak, gustuko duten jakiteko eta behin proba garaia pasata, eskolan jarraitu nahi duten ala ez erabakitzen dute.

Eskupilota eskaintza elkarteak mutilei zuzentzen die, besteak beste, gaur egun ez baitago nesken arteko eskupilota txapelketa antolaturik federazioan. Bada, ordea, Lasarte eta Usurbil artean neska talde bat eskupilotan aritzen dena, era antolatuan izan gabe.

Entrenamendu eta partiduetarako Mitxelingo frontoia erabiltzen dute asteartetik ostegunera bitartean, bi orduz, eta aste bukaeretan partiduetarako. Mitxelingo frontoia egoera onean dago, orokorrean: ordutegian arazorik ez dute izaten, argiztapena ondo dago eta frontisean zuloak azaltzen direnean berehala konpontzen dituzte.

Udalerriko festen egitarauaren baitan, urtean bi txapelketa antolatzen ditu elkarteak: gizonen Eskupilota Txapelketa eta emakumeen Pala Txapelketa. Pasa den ikasturtean partaidetza 50 lagunena eta 20 lagunena izan zen, hurrenez hurren. Txapelketak aste bukaeretan jokutzen dira eta amaitzean elkarteak bazkari bat eskaintzen die guztiei.

## OSTADAR SKT

Kirol federatura zuzenduta dago, nagusiki, baino baditu kirol eskolak eta partaidetzako kirola egiten duten kirolariak ere. Gaur egun, 500 kirolari aritzen dira elkartean eta 600 bazkide inguru ditu elkarteak.

Zuzendaritza lehendakariak, lehendakari ordeak, diruzainak eta idazkariak osatzen dute atal bakoitzeko arduradunekin batera. Guztira, 13 pertsona dira. 8 kirol atal ezberdin dituen elkarteak da: futbola, saskibaloia, rugbya, txirrindularitza (zikloturistak), atletismoa, tenisa, areto futbola eta bolo eta toka. Atal bakoitzak bere funtzionamendua du eta bakoitzak beste lan-talde bat osatzen du. Erabaki orokorrak, klubari dagozkionak, Zuzendaritza Batzordean hartzen dira eta, beste guztiak, norberak bere atalean.

Elkarteko kirolari guztiek, errugby-koek izan ezik (funtzionamendu erabat autonomoa izateko adostasunera iritsi baitziren) kuota bat ordaintzen dute urtean eta, era horretan, elkarteko diru sarrerak eta gastuak era zentralizatuan eramaten dira. Izapide administrazioen ardura ere zentralizatuta dago eta elkarteko idazkaria arduratzen da lan honetaz.

Gainera, herrian urtean zehar kirol ospakizun ezberdinak antolatzen dituzte, esaterako, kros txikia, saskibaloiko 3x3a, “Martin-Santi Memoriala” bolo eta toka txapelketa edo oihartzun handia lortu duen kros herrikoa (partaidetzaren %70a herrikoa). Beste ospakizun batzuk antolatzen laguntzen du elkarteak, besteak beste, adinekoen ibilbide neurtua, aek-ko korrika edo jaietan antolatzen diren ospakizun ezberdinak.

## SAIATUZ TXIRRINDULARI KIROL TALDEA

Elkartea lagun talde batek sortu zuen bizikletan ibiltzeko elkartzen zirelako eta beste udalerrri batzuetako txapelketa edo lehiaketa herrikoietan parte hartzen zutelako. Gaur egun 25 bat lagunek, guztiak mutilak, osatzen dute elkartea eta filosofia berarekin jarraitzen dute. Elkartek badu Zuzendaritza Batzordea baina ez du antolaketa zehatzik. Entrenamenduak edo bizikletan ibiltzera joateko beraien artean antolatzen dira edo bakoitzak bere kabuz egiten du.

**Elkarteko kide bakoitzak 5€ ordaintzen ditu urtean, kuota sinboliko gisa, eta norberak bere fitxa ordaintzen du eta bere ekipamendu propioa du.**

Entrenamenduetarako ez dute udal instalaziorik erabiltzen eta, orokorrean, elkarteko kideek urtean 10 bat probetan hartzen dute parte, bai zikloturismo bai BTTko probetan.

Maiztasun zehatzik gabe elkartek udalerrian BTTko travesia antolatzen du eta aurten Lasarte-Oriako IV BTT Travesia antolatu dute. Nagusiki, 6-7 bat lagun aritzen diren antolaketa lanetan baina elkarteko guztiek hartzen dute parte lan ezberdinak egiten. Egunean bertan elkarteko kideez gain, lagunak eta ingurukoak ere aritzen dira lanean. Partaidetza goraka doa: lehenengo aldiz antolatu zutenean 180 bat pertsonak hartu zuten parte eta aurtengoan, aldiz, 400 lagunek.

Travesia antolatzeko, maila ekonomikoan, babesleak izaten dituzte eta diru-laguntzak ere jaso ohi dituzte baina, hala eta guztiz ere, elkartearentzat ez da bideragarria izaten travesia antolatzea ekonomikoki. Komunikatiboki, kartelak jartzen dituzte proba ezagutzera emateko eta egunkari ezberdinetan albisteak argitaratu ohi da.

Elkartek badu beste atal bat ere, triatloiko atala, hain zuzen. 10 pertsona baino gehiago ariko dira atal honetan, neskek eta mutilak, baina atal bakoitzak antolaketa erabat autonomoa du.

## CD SENSU

CD Sensu elkartea Gipuzkoako Karate Federazioak homologatutako zentroa da eta 20 urte daramatza lanean. Kirolarien artean, 7 urteko adina duten neska-mutilak daude eta elkartean aritzeko ez dago adinaren arabera mugarik, hau da, ez dago mugarik kirola egiteko eta karatearen praktikarako.

Zuzendaritza Batzordea 3 pertsonak osatzen dute eta teknikari bakarra dago elkartean, saio guztiak gidatzen dituena eta karatean trebatua. Bestalde, kirolariak lehiaketetara eramateaz kirolarien gurasoak arduratzen dira.

Elkartearen kirol jarduera ezagutzera emateko Diario Vasco egunkarian eta Txintarrin albisterei bat edo iragarkiren bat jartzen dute noizean behin baina maiztasun zehatzik gabe. Aldi berean, erakustaldiak eta saio irekiak antolatzen dituzte urtean zehar gurasoek eta udalerriko neska-mutilek jarduera ezagutzeko aukera izan dezaten. Kalera ere ateratzen dute jarduera eta urtean behin, saio bat kalean antolatu ohi dute. Era berean, hitzaldi bat antolatzen dute erlaxazioaren eta meditazioaren inguruan, Lasarte-Oriako beste kirol elkarteei ere zuzenduta dagoena.

Elkarteko diru sarrera nagusia, kirolarien kuota da, klubak ez baitu diru-laguntzarik jasotzen eta ez du ere patroziniorik. Kirolari bakoitzak, bere aldetik, kiroldegiko bazkide izan behar du instalaziora sartu ahal izateko eta norberaren erabilerarako beharrezkoa den kirol ekipamendua ere norberak erosi behar du, segurtasunerako ekipamendua, nagusiki. Aipagarria da, kirol ekipamendua erreziklatu egiten dela.

Elkartek kiroldegia, tatamia, erabiltzen du saioak burutzeko astelehenetik ostiralera bitartean ordutegi ezberdinetan. Gazteak astean bi egunetan aritzen dira arratsalde, ordubete inguru, eta helduak, goizez edo arratsalde, astean hiru aldiz, ordubete inguru ere. Tatamia egoera onean dago (olana aldatu zenetik hobeto) eta ondo moldatzen dira duten espazioa kontuan hartuta. Espazio gehiago izango balute, eskaintza handiagoa egiteko gai izango lirateke.

Kirol elkartean hasten diren gazteak, 12-13 urte betetzen dituztenean, sarritan bi kirolen arteko aukeraketa egin behar izaten dute (karatearen eta futbolaren artean, gehienetan) eta askok orduan karatea utzi egiten dute. Baina hauetako askok 18-20 urte inguru dituztenean berriro ere karatera bueltatzen dira. Ikasketagatik kanpora joaten direnak, ordea, karatearekin jarraitzen dute ikasketak burutzen dituzten hirietan eta herrira bueltan, berriro ere elkartera bueltatzen dira.

## TTAKUN KULTUR ELKARTEA

Ttakun Kultur Elkarte Lasarte-Orian euskararen eta euskal kulturaren normalizazioa sustatzen ari den elkarte da. 500 bazkide izateaz gain, begiraleak, kolaboratzaileak eta bolondres moduan lanean aritzen diren pertsonak askok osatzen dute elkarteko lan-sarea.

Sail ezberdinetan antolatzen du bere jarduera (haurren aisia, gazteak, kultura, e.a.) eta zerbitzu ezberdinak eskaintzen ditu udalerrian. Kirola eta jarduera fisikoko esparruan, Ttakunek egun bi ardurua nagusi ditu eskola kirolean: batetik, kudeaketa eta koordinazioa eta, bestetik, euskarazko formakuntza eskaini eskola kirolean begirale dabiltzanei.

## KUKUKA DANTZA ETA ANTZERKI TALDEA

Kukukak euskal dantza, euskal dantza sorkuntza, dantza garaikidea eta antzerkiko eskaintza du udalerrian. 5 urtetik gorakoak aritzen dira jarduera ezberdinetan eta, guztira, 600 lagunek osatzen dute taldea.

Herriko espazio ezberdinak erabiltzen dituzte saioak egiteko ikastetxeak, gaztelekua eta kultur etxea, nagusiki. Koordinazio orokorraz 4 pertsonako lan-taldea arduratzen den arren, 6 batzorde dituzte eratuta zeregin ezberdinak aurrera eramateko: dokumentazioa, formakuntza, komunikazioa, ekonomia eta atrezzo eta jantziak.

Eskaintza helarazteko, ikastetxeen bidez neska-mutilei eskaintza luzatzen zaie eta ikasturte amaieran izena ematen dute hurrengo ikasturterako. Gazte eta helduei helarazteko, aldiz, Txintxarrin deialdia argitaratzen da.

Ekonomikoki, taldeko kideek urteko kuota bat ordaintzen dute eta, besteak beste, kuota hauek ahalbidetzen dute saioak zuzentzen dituzten begiraleak trebatuak izatea. Guztira, 22 begirale daude taldean.

Horrez gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko diru-laguntzak jasotzen dituzte eta aurten, lehenengo aldiz, Udalarekin hitzarmena sinatu dute ekonomikoki urtean diru kopuru bat jasotzeko eta espazio aldetik, taldeak dituen beharrak ikasturte bakoitzerako kontuan har daitezten.

Kukukak ez du lokal edo espazio propio bat lan administratiboak egiteko, bilerak egiteko edo duten material guztia gordetzeko. Gaur egun, elkarteak telefonoa eta korreo elektronikoa izan baditu baina izapide guztiak lan-taldeko kideek beraien etxean egiten dituzte eta arropak eta beste material guztia ere taldeko kide ezberdinek beraien etxean dituzte. Horrek guztiak sortzen dituen zailtasunez gain, ikasturte hasieran gazte eta helduei eskaintza zabaltzen zaienean, izena eman nahi duenak ezin du izen ematea inon egin kultur etxe edo antzeko udal eraikinetan eskaera egin nahi duenak ezin baitu bertan papera utzi.

Beste elkarteekin lankidetzan aritzen da urtean zehar Ttakun KErekin edo Jalgune Elkartearekin, esaterako.

## SANTA ANA PALA TXAPELKETA

Lagun talde bat da eta ez kirol elkarte bat. Urtean zehar frontoia erabiltzen dute beraien arteko partidak jokatzeko eta urtean behin txapelketa bat antolatzen dute. 2014ean 9 bikote aritu dira lehian. Antolatzaileek partaidetzan behekada antzematen dute eta arrazoi nagusia, herritarrek soilik parte hartu ahal izatea dela uste dute. Datorren urtean beste herrietako bizilagunek ere parte hartu ahal izatea aurreikusten dute.

Txapelketa antolatzeko babesle bat dute (materiala erosteko) eta Udaleko diru-laguntza ere jaso ohi dute.

## LASARTE-ORIA KIROL ELKARTEA

5 kirol atal ditu egun elkarteak atletismoa, judo-sambo, gimnasia erritmikoa, mahaiko tenisa eta tenisa. Guztira, 500 bat kirolari aritzen dira elkarteko jardueretan.

Zuzendaritza Batzordean lehendakaria, lehendakari ordea eta atal bakoitzeko ordezkari bat dago. Atal bakoitzeko ordezkaria, aldi berean, ataleko entrenatzaile nagusia da. Elkarteak egitura zentralizatua duen arren, atal bakoitzak bere autofinantziazioa bilatu behar du kuoten bidez, kirol ospakizunak antolatuz, e.a. Atal bakoitzak diru-sarrerak lortzeko nahi dituen ekintzak antolatu ditzake. Diru-laguntzak edo babesleen bidez jasotakoa Zuzendaritza Batzordean lortutako akordien arabera banatzen da.

Elkartearen egungo arazo larriena, beste elkarteen antzera, bai eskola adinekoekin bai federatuekin aritzen diren begiraleen egoera erregularizatzean datza. Diru-sarrera gehiago lortu ezean ezinezkoa iruditzen zaie.

Kirol arloan, atletismoko atalean lehiaketa herrikoietan parte hartzeko taldea sortu dute eta ikastetxeetan ere kanpaina ezberdinak egiten ari dira kirol modalitate hau sustatzeko. Instalazioen erabilerari dagokionez, mahaiko tenisak akordioa du Atlético San Sebastián Elkartearekin instalazioen erabilerarako.

Ondorengo taulan herriko kirol elkarteek beraien jarduera antolatzeko dituzten oztopo edo beharrak jasotzen dira:

Elkarteen beharrak eta oztopo nagusiak

## JARDUERA ANTOLATZEKO OZTOPO ETA BEHARRAK

“Papel asko bete behar izaten da eta oso gutxi jasotzen da. Diru-laguntzen adibideak garbi asko erakusten du hori.”

“Elkarteak antolatzen dituen Txapelketengatik diru-laguntzak jasotzeko, txapelketa defizitarioa izan dela aurkeztu behar du. Ulergaitza da.”

“Egun diru-laguntzekin dagoen arazoa ikusita, Udalak elkarteekin lankidetzeta-hitzarmenak sinatu beharko lituzke eta diru-laguntza sistema alde batera utzi.”

“Kiroldegiko bazkide egiteko abonoen artean ez dago langabetuentzat edo ezintasunen bat dutenentzat abono berezirik. Bazkide egiteko prezio politika aldatu beharra dago.”

“Kiroldegiko balio anitzeko pistan entrenamenduak egiteko zailtasunak ikasgarriak dira, ordutegi aldetik, saturatuta baitago.”

“Biztanleria antzekoa duten beste udalerrri batzuekin alderatuta, Lasarte-Oriako diru-laguntzen poltsa oso urria da.”

“Kiroletako udal politika baten falta somatzen da.”

“Elkarteak lan sozial bat egiten ari gara herrian eta Udalak guk ditugun gastuak inbertsio bezala ikusi beharrean, gastutzat hartzen ditu.”

“Dagoen espazio faltagatik eta entrenatzeko espazioak faltan daudenez, udal kudeatzaileak taldeak ez ateratzeko aditzera eman zigun.”

“Udalak prezio politika berrikusi beharko luke. Abono mota ezberdinak atera adinekoentzat, ezintasunen bat dutenentzat, langabetuentzat, e.a.”

“Bi kirolgune badaude herrian, bi abono mota atera ditzatela, bat instalazio bakoitzerako. Miltxelinerara joaten ez denak zergatik ordaindu behar du bi instalazioetan ibiltzen den pertsona baten abono berbera?”

“Udalaren malgutasun falta azpimarragarria da bai diru-laguntzei dagokienez bai ordutegiei dagokienez.”

ITURRIA: Norberak egina



## 3.2. Buruntzaldea Kirolak

1995ean Andoain, Lasarte, Urnieta eta Usurbilgo Udalek Buruntzaldea Kirolak sortu zuten udalerrri hauetako herritarrei kirol instalazioen eta kirol zerbitzuen aukera zabaltzeko asmoz. Tokian tokiko baliabideak urriak zirenez, kirol esparruan, udalen arteko elkarlana sendotzeko konpromisoa hartu zuten herritarrei ahalik eta kalitate oneneko zerbitzuak eskaintzeko xedearekin.

Horrela, lau udalerrietako Udalek irizpide berberak izaten dituzte kontuan eskualde mailako kirol zerbitzuen funtzionamendua arautzeko baina, hala ere, elkarlanak ez du bakoitzaren autonomia oztopatzen.

Ondorioz, zenbait zerbitzu amankomunean dituzte:

- Lau udalerrri hauetako udal kirol instalazioetako bazkide denak, beste udal kirol instalazioetan sarrera libre du.
- Ekintza programaren eskaintza zabalagoa da, era horretan, kirol instalazio guztietako ekintzetan izena emateko aukera baitute.
- Eskola kirolean begirale aritzen direnentzat euskarazko kirol-materiala banatzen da (**entrenamenduetarako fitxak...**).
- **Kirolean euskararen erabilera sustatze aldera, urtero “Kirola Euskaraz” programa garatzen da.**
- Euskararen inguruko sentsibilizazio ekintzak antolatzen dira.
- Eskola kirolean euskararen egoeraren inguruko azterketak egiten dira eta euskara sustatzeko diru-laguntzak bideratzen dira.

### 3.3. Lasarte-Oriako kirolguneak: Kiroldegia eta Mitxelin gunea

Lasarte-Orian kirol eta jarduera fisikorako bi kirolgune azpimarra daitezke: Kiroldegia eta Mitxelin gunea. Badira ere, ordea, jarduerak egiteko beste hiru espazio ere: Gaztelekua, Kultur Etxea eta Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroa ere. Atal honetan aurrez aipatutako bi kirolgune nagusiak aztertuko dira.

Hasteko, Kiroldegiak eta Mitxelingo instalazioak duten ordutegia ageri da ondorengo taulan, bai urtean zehar bai abuztuan:

Kiroldegiko eta Mitxelingo ordutegiak

INSTALAZIOEN ORDUTEGIA		IRAILA-EKAINA			UZTAILA-ABUZTUA		
		Astelehenetik ostiralera	Larunbata	Igandea	Astelehenetik ostiralera	Larunbata	Igandea
Udal kiroldegia	Igerilekua	7:00-12:30 14:00-21:30	9:00-13:00 16:00-20:00	9:00-13:00	7:00-12:30 17:00-21:30	9:00-13:00	ITXITA
	Kiroldegia	7:00-12:30 15:00-22:30	9:00-20:00		7:00-13:00 17:00-22:00	9:00-13:00	
	Sauna	9:00-12:30 15:00-21:00	ITXITA		9:00-12:00 17:00-21:00	ITXITA	
	Bulegoa	10:00-12:30 17:00-19:00			10:00-12:00		
Mitxelin gunea		15:00-22:00	9:00-20:00	9:00-13:00	10:00-12:30 17:00-21:00	9:00-13:00	ITXITA

\*Hilabete bakoitzeko azken ostegunetan sauna itxi egiten da garbiketa orokorra egiteko.

Ondoren abonoak eta bazkidetza aztertzen dira:

Hiru abono mota daude: familiarra, 18 urtetik gorakoentzat eta 18 urtetik beherakoentzat. Egun baterako sarrerak ere adinaren arabera ezberdintzen dira, 18 urtetik gorako eta beherakoentzat. Eta badira zenbait zerbitzu bazkideek ere ordaindu beharrekoak erabili ahal izateko, hala nola, sauna eta squasha.

Pilotaku edo squasha erabiltzeko erreserba egun bat lehenago egiten bada ordaindu beharra dago. Aldiz, egunean bertan 15 minutu lehenago libre badaude, harreraren izena eman eta ordaindu gabe erabiltzeko aukera du bazkideak.

Abono motak eta prezioak 2014


Abonoak.	€
Banakako heldua (18tik gora)	157 €
Banakako gaztea (18tik behera)	99 €
Familiarra	239 €
<b>Sarrerak</b>	
18 urtez gorakoak	5,90 €
18 urtez beherakoak	3,70 €
<b>Zerbitzuak</b>	
Squasha	5,20 €
Pilotalekua (argia barne)	17,20 €
Sauna	3,70 €
Giltza hautsi edo galtzea	5,20 €
Karneta hautsi edo galtzea	3,50 €

ITURRIA: Norberak egina

Hala eta guztiz ere, badira beste zerbait abono mota ondorengo kasuetan:

- Ezintasun fisikoren bat duten pertsonak %20 gutxiago ordaintzen dute abonoa.
- Abono familiarra guraso eta 18 urtetik beherako seme-alabentzat da berez. Baina 18-25 urte bitarteko seme-alabak ikasten edo langabezian badaude, abono familiarren kuota mantendu egiten da.
- Hilabete baterako abonoa edo urteko hilabete jakin batzuetarako abonoa ere egin daiteke.
- Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen dutenek, errentaren araberrako abonoa ordaintzen dute.
- Udaleko nahiz Eusko Jaurlaritzako Gazte Txartela dutenek %10eko beherapena dute urteko abonoan.

Azken 13 urteetako bazkidetza kopurua aztertuz, etengabeko gorakada argia da eta, gaur egun, udal instalazioetako bazkide herritarren %34a da.




ITURRIA: Norberak egina

Bi instalazio eta ekipamenduen erabileraren inguruan, hiru multzotan banatu daiteke erabilera: ikastetxeek egiten dutena (Gorputz Heziketako saioetarako nahiz eskola kirolerako), kirol elkarteek egiten dutena eta, azkenik, bazkideek egiten dutena. Lehenengo bi multzoei dagokienez ondorengo erabilera egin dutela esan daiteke:


Ikastetxeek erabilitako instalazio eta ekipamenduak (%) 2013/2014

Ikastetxeek 2013/2014 ikasturtean, gehien bat kiroldegiko pista erabili dute, ikastetxeek Gorputz Heziketako saioak egiteko espazio egokia falta dutelako, besteak beste. Horrez gain, ekipamendu ezberdinak erabili dituzte, hala nola, tenis pistak, igerilekua, pista irekia edo atletismoko pista.



Kirol elkarteek erabilitako instalazio eta ekipamenduak (%) 2013/2014

Aldiz, kirol elkarteek gehien erabilitako instalazio eta ekipamenduak futbol zelaia, igerilekua, tenis pistak, tatamia eta erabilera anitzeko pista izan dira.



ITURRIA: Norberak egina, Kirolerako Zerbitzu Municipalaren memoria oinarri hartuta

### Kirol elkarteek erabilitako instalazio eta ekipamendu kopurua 2013/2014


Elkarteen aldetik erabiltzeko eskaera gehien izan duten espazioak denboraldiko momenturen batean erabilera anitzeko pista, pista irekia, pilotalekua eta atletismoko moduloa izan dira.

Instalazio eta ekipamenduak	Erabili duten elkarte kopurua
Erabilera anitzeko pista	9
Tatamia	3
Igerilekua	1
Gimnasioa	1
Erabilera anitzeko aretoa	2
Pilotalekua	4
Kontrakantxa	2
Pista irekia	5
Futbol zelaia	3
Tenis pistak	3
Atletismoko moduloa	4

ITURRIA: Norberak egina, Kiroletako Zerbitzu Municipalaren memoria oinarri hartuta

Udal instalazioen egoeraren inguruan erabiltzaileek duten iritzia jasotzeko informazio iturri ezberdinak erabili dira: Bizkortzenek jarduerak egiten dituztenei egin dizkien inkestak 2013/2014 ikasturtean, kirol elkarteek emandako iritzia gai honen inguruan (aurreko atalean aipatzen direnak) eta, azkenik, erabiltzaile talde batek Udalari helarazi zion eskaera beharrak lehenengo eta bigarren mailako beharrak ezberdindu. Azkeneko biak instalazioen atalean aztertuko dira eta ondoren inkesten emaitzak azaltzen dira:

### Bizkortzenek egineko inkesten emaitzak 2013/2014



ITURRIA: Norberak egina, Bizkortzenen inkestak oinarri hartuta

Inkesten emaitzen arabera, udalerriko kirol espazioek ez dute erabiltzaileen asebetetze maila gainditzen. Horrez gain, puntuaketa baxuena garbiketa eta informazio eta atentzio zerbitzuak izan dira eta erabiltzaileak gustoen, aldiz, hizkuntzen erabilerarekin daude.

### 3.4. Udala: kirola eta jarduera fisikoa zeharkakotasunetik landuz

Udalerriko kirol eta jarduera fisikoa, nagusiki, Lasarte-Oriako Udaleko kiroletako zerbitzuak antolatu eta kudeatzen duen arren, Udaleko beste zenbait zerbitzuetatik kirola edo jarduera fisikoan zuzeneko edo zeharkako harremana duten ekintza eta lan ildoak ere aurrera eramaten dira. Horregatik, ondorengo atalean kirola eta jarduera fisikoan eragina duten Udaleko zerbitzuen lana aztertzen da:

#### KIROLETAKO ZERBITZUA

Lasarte-Oriako kirol sailak udalerrian jarduera fisikoa eta kirola eta jarduera sustatzeko lan ildo ezberdinak jorratzen ditu:

##### 1. Buruntzaldea Kirolak

Aurreko atal batean azaldu den bezalaxe, Lasarte-Oriako kiroletako zerbitzuak eskualdeko beste hiru udalerrirekin hitzarmena du. Horrela, lau udalerrietako kiroldegiek irizpide berberak erabiltzen dituzte, nagusiki, kiroldegi ezberdinetako bazkideen zirkulazio librea ahalbidetzeko.

##### 2. Eskola kirola

Udala Eskola Kiroleko Tokiko Batzordeko parte da eta ikastute bakoitzean eskaintza diseinatzeko guraso elkarte eta Ttakun Kultur Elkartearekin lankidetzan aritzen da. Horrez gain, bai Gorputz Heziketako saioak eta baita Eskola Kiroleko saioak burutzeko ere udal instalazioak uzten ditu.

##### 3. Diru laguntzak

Kirol jarduerara bideratutako 4 diru-laguntza lerro ditu Udalak, urtero plazaratzen dituenak: Kirol arloan diru-laguntza arruntak emateko oinarri espazifikoak; Kirol federatua emakumeen parte-hartzea bultzatzeko diru-laguntzak emateko oinarri espazifikoak; Gutxiengoan dauden kirolen arloan Jon Tecedor laguntza emateko oinarri espazifikoak; eta, azkenik, Kirol jarduera puntualei diru-laguntzak emateko oinarri espazifikoak.

Alde batetik, 2003an estatu mailako Diru-Laguntzen Legea dela eta, bestetik, 2012ko Lasarte-Oriako Udalak eginiko Ordenantza dela eta, 2012 eta 2013ko diru-laguntzen banaketa geldirik egon da, elkarteek araudiek ezarritako baldintzak betetzeko arazoak izan dituztelako. Arazo nagusia kirol monitoreen kontratazioan eta hauen soldaten justifikazioan datza.

Egoera honen aurrean, Udala bi alternatiba aztertzen ari da. Etorkizunean elkarteei nola lagunduko dien hauek gastuak justifikatu ahal izateko eta egun banatzeke dauden diru-laguntzak nola banatu erabakitzeko.

Gai hau Kirol Mahaiean eztabaidagai izan da azken hilabetetan eta Udala irtenbide ezberdinak aztertzen aritu da konponbide egokiena aurkitu asmoz. Bada proposamen bat Kirol Batzordean landu dena eta guztien adostasuna lortu duena. Soilik onartzea falta da.

Etorkizunera begira Udalak ondorengo proposatzen du: batetik, fakturen justifikazioan dagoenez oztopo nagusia, kirol elkarteei aholkularitza zerbitzu bat eskaintzea izapide administratiboak egiten lagunduko diena eta nola egin azalduko diena. Eta, bestetik, elkarteek izango duten gastuen igoera orekatzeko asmoz, ohiko jardueren diru laguntza poltsa 12.000 eurotik 62.000 eurora igotzea. Era horretan, elkarteek entrenatzaile eta begiraleen lan egoera erregulatzeko aukera izango dute eta baita aholkulatitza zerbitzua ere lan administratibo guztiak nola egin azaltzeko. Egun banatzeke dauden diru-laguntzekin Udalak hitzarmenak sinatzeko asmoa du diru-laguntzak jasotzeko zai dauden elkarteekin.

#### 4. Udaleko Kirol zerbitzuko langileak eta azpikontratatuak enpresak

Udala kirol jarduerak egiteko udalerrian dauden instalazioez arduratzen da, nagusiki; instalazioen kudeaketaz; bertan antolatzen diren jardueraz; eta mantentze- eta hobetze-lanaz. Udalerrian bi kirolgune nagusi daude eta hauetarako Udalak zerbitzu eta enpresa ezberdinak ditu kontratatuta, udal langileez gain. Aurrez aipatutako lan hauek guztiak egiteko kirol zerbitzuak ondorengo enpresak ditu azpikontratatuak:

UDAL LANGILEAK: kirol zinegotzia, kirol teknikaria eta administrari laguntzailea.

BIZKORTZEN SL: Jardueretako begiraleak, sorosleak eta zuzendaritza teknikoak

M<sup>a</sup> JESUS YEREGUI Y OTROS: Atezaintza, kafetegia eta lan administratiboak (urtean 1.000 ordu)

GALANT – GUREAK TALDEA: Garbiketa

IHEKI: Mantentze-lanak

#### 5. Kirol Mahaia

Lasarte-Oriako Kirol Mahaia 2012an sortu zen eta bertan kirol elkarteetako ordezkariak eta udaletxeko kirol saileko teknikari eta politikariak biltzen dira hiru hilabete behin. Helburu nagusiak kirol saila eta kirol elkarten arteko harremana sendotzea eta udalerriko kirolari dagozkion gai nagusien inguruko erabakiak elkalan hartzea dira. Horrela, Kirol Mahaiko bileretan jorrotzen diren gaiak Kirol Mahaiko kide den edonork proposa ditzake eta bertan hartzen diren erabakiak izaera erabakitzailea dute.

Kirol Mahaiaren funtzio nagusiak bi dira. Batetik, herriko kirolaren egoera orokorrari eragiten dieten gaiak jorrotzea, diru-laguntzak, kirol elkarteen lokalak edo instalazioen egoera, esaterako. Bestetik, kirol elkarte baten arazoren bat lantzea, momentu jakin batean elkarteren batek duen arazo zehatz bat jorrotzea.

Orain arte 6 bilera burutu dira eta kirol elkarte guztietako ordezkariak bertaratu ez diren arren, bilera bakoitzean 4 kirol elkarteetako ordezkari izan dira bilera bakoitzean. Azken bileretan, diru-laguntzak izan dira hizpide, egun elkarteek duten arazo aipagarriena baita.




## HIZKUNTZA-EGOERA KIROLA ETA JARDUERA FISIKOAN (Euskara Zerbitzua)

Euskara kirolean bai udalerrri mailan eta baita eskualde mailan jorratutako gaia da. Bere garaian, Euskara Zerbitzuak eta Ttakun Kultur Elkartek begiraleak hizkuntza kudeaketan formatzeko edo trebatzeko metodologia propioa landu zuten eta urteen poderioz, metodologia honek kirolean emaitza onak lortu ditu.

Kirol esparruan euskara hiru arlo ezberdinetan banatu da: eskola kirolean, kiroldegian (jardueretan) eta kirol elkarteetan. Eskola orduz kanpoko jardueretako begiraleei formakuntza saioak eskaintzen zaizkie, lehenengo talde bakoitzaren argazkia atera ahal izateko eta ondoren baliabide ezberdinak eskaini saioak aurrera eraman ahal izateko. Elebiduna izanagatik, begiraleak zailtasunak izan ditzake saioak zein hizkuntzetan edo nola burutu behar dituen jakiteko. Honen guztiaren helburua begiraleek saioak euskaraz burutzeko euskararekiko duten gaitasuna eta praktika linguistikoa orokortzea dira.

### ESKOLA KIROLA

15-20 urteko ibilbidea egin duen metodologiak lorturiko emaitzak dira ondorengo irudietan azaltzen direnak. Informazio iturri gisa, Buruntzaldea Kirolak-ek lau urtetik behin euskararen egoeraren inguruan egiten duen azterketa da. 2014/2015 ikasturtean berriro egitea aurreikusten da:




Norberak egina, Buruntzaldea Kirolak-eko datuak oinarri hartuta

Entrenatzaileen artean euskaraz entrenatzeko gai direnak nabarmen ugartu dira eta euskaraz ez dakitenak gutxitu.

Neska-mutilen artean beti euskaraz hitz egiten dutenak asko gutxitu dira eta egun bai euskaraz bai gazteleraz hitz egiteko joera antzematen da, euskaraz gehiago hitz egin arren.


Euskararen erabilera haurren artean (%) 1998-2011



Norberak egina, Buruntzaldea Kirolak-eko datuak oinarri hartuta

Euskara entrenatzaile eta haurren arteko harremanean (%) 1998-2011

Entrenatzaile eta haurren arteko hizkuntza euskara izatea ez da aldatu baina haurrek euskaraz egitea eta begiraleak ez nabarmen jeitsi da.




Norberak egina, Buruntzaldea Kirolak-eko datuak oinarri hartuta

## KIROL ELKARTEAK

Kirol elkarteekin ez da metodologiarik garatzen eta azken urteotan saioak euskaraz burutzeko ez da esku-hartze neurririk diseinatu. Buruntzaldea Kirolak-ek bai idatzizko bai ahozko komunikazioaren inguruko datuak jasotzen dituen arren, esparru honetan ez da euskararen erabilera sustatzeko aurreko kasuan egin den esfortzua egin. Hori bai, diru-laguntzetan euskararen erabilera baloratzen da.


2014ko ekainean jasotako informazioaren arabera, elkarteek ondorengo irudietan azaltzen den euskararen erabilera egiten dute bai idatzizko komunikazioan bai ahozko komunikazioan. Datu bilketan udalerriko 12 kirol elkarteetatik 11k hartu zuten parte. Ondoren idatzizko komunikazioan elkarten hizkuntzen erabilera ageri da:




Ahozko komunikazioari dagokionez, ondorengo irudietan azaltzen da kirol elkarteak nola mintzatzen diren publikoaren arabera:

Bilerak zein hizkuntzetan egiten diren....


- Erabat euskaraz
- Elebietan
- Erabat gazteleraz
- Nagusiki euskaraz
- Nagusiki gazteleraz




Ahozko azalpen publikoetan...




Elkarteko kirolarien artean...



Entrenatzaileak kirolariei...




Udalarekin...



## KIROLDEGIKO IKASTAROAK

Azkenik, Udalak kiroldegiko **jarduerak euskalduntzeko “Danontzako Kirola”** esku-hartze programa martxan du. Programa honen bidez, lehendabizi, begiraleak elebidunak izan daitezen ziurtatu da, ondorengo grafikoan ikus daitekeen bezala.



Norberak egina, Buruntzaldea Kirolak-eko datuak oinarri hartuta

Beste alde batetik, begirale elebidunekin lanketa bat egin da eta jardueretan hizkuntzen erabilera arautzeko metodologia definitu da, hurrengo taulan laburbiltzen dena:

### Kiroldegietako jardueretako hizkuntza erabileraren metodologia

Taldeen tipologia	Monitoreak ikasleei	
	Hizkuntza-jokabidea	Hizkuntza irizpideekin bat al dator? BAI ala EZ
A Ikasle guztiak gai dira klasea euskaraz jarraitzeko.	EE	
	NE	
	EL	
	NG	
	EG	
B Ikasleen erdiak baino gehiago dira gai.	EE	
	NE	
	EL	
	NG	
	EG	
C Ikasleen erdiak baino gehiago ez dira gai.	EE	
	NE	
	EL	
	NG	
	EG	


  

EE	Erabat euskaraz ematen da ikastaroa.
NE	Nagusiki euskaraz ematen da ikastaroa baina bakarkako azalpenetan batzuei gazteleraz ematen zaizkie.
EL	Ikastaroak elebrietan ematen da: azalpenak bi hizkuntzetan ematen dira edota azalpen batzuk euskaraz eta beste batzuk gazteleraz. Hala ere agurrak, animoak, zenbakiak, e.a. euskaraz egiten da eta euskaraz ulertzen dutenei bakarkako azalpenak euskaraz ematen zaizkie eta ulertzen ez dutenei, aldiz, gazteleraz.
NG	Jarduera gazteleraz ematen da baina agurrak, animozmo hitzak, e.a. euskaraz eta bakarkako azalpenak euskaraz, euskaraz egiten dutenekin.
EG	Ikastaroa erabat gazteleraz ematen da.

ITURRIA: Buruntzaldea Kirolak 2013-14 memoria oinarri hartuta

Metologia hau jarraituz, begiraleek lehenik eta behin taldeen ezaugarriak definitu eta taldeak A, B edo C motakoak diren erabaki behar du. Tipologia honen arabera, jardueretan hizkuntzen erabilerak nolakoa izan behar duen definitzea da hurrengo pausoa (NE, EL, NG edo EG). Horrela, urteetan zehar pausok ematen ari da Udala, zenbait jarduera euskara hutsean eman ahal izateko.

Metodologia horren arabera, herritarren hizkuntza ezaugarriak eta begiraleek egiten duten hizkuntza-praktika konkordanteak izatea bilatzen da. Konkordantzia-indize horrek bilakaera hau izan du:



## GAZTERIA ZERBITZUA

Lasarte-Oriako Gazteria sailak ikasturte bakoitzerako gazteei, 15-30 urte bitarteko nerabe eta gazteei zuzendutako eskaintza ateratzen du. Ekintza edo jardueren artean, kirola eta jarduera fisikoarekin harremana duten ekintzak daude, mugimenduzko jarduerak, alegia.

Adin-talde honi bideratuta ekintzak doakoak dira eta formatu, iraupen eta maiztasun ezberdina izaten dute. Dantzak, zumba eta batukada dira, besteak beste, eskaintzen diren ekintzak. Oro har, nerabe eta gazteentzat erakargarriak diren ekintzak antolatzen saiatzen dira. Ikastaroak motzak dira, jarduera ezagutzeko eta jarduera fisiko edo kirol ohiturak barneratzeke.

Ikastaroaren arabera 15-30 urte bitarteko gazte eta nerabeek elkarrekin burutzen dituzte zuzen saioak edo adinaren arabera talde ezberdinak antolatzen dituzte, guztien erosotasunerako.

Gazteriako jarduerak sailak berak antolatzen ditu eta egun jarduera edo ikastaro guztiak Gaztelekuan bertan eskaintzen dira. Eguneko zenbait ordutan espazio falta badago ere, jarduerak burutzeko beharrezkoa den espazioa erreserbatu egiten da.

Mugimenduzko jardueren inguruan, Gazteriatik bi kezka nabarmentzen dira. Batetik, herriko eragile ezberdinek (bai udaleko sail ezberdinek bai elkarrteek) eskaintza berbera egitea, hau da, jarduera berbera eskaintza publiko berdinerara zuzenduta. Eta, bestetik, ikastaro trinkoak antolatzeko zalantza, egungo baliabideak mugatuak baitira. Horregatik guztiagatik, herriko jarduera fisiko edo kirol eskaintza bateratzea eta koordinatzea komenigarria litzateke.

## GIZARTE ZERBITZUAK

Udaleko zerbitzu honek jarduera fisikoa sustatzeko asmoz, udalerriko herritar segmentu ezberdinei eskaintza ezberdina egiten die.

Batetik, Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroa darama eta bertan jarduera ezberdinak antolatzen ibili dira zentroa ireki zenetik, duela hamar urtetik gaur arte. Eskaintza bai emakumeentzat eta gizonentzat bada ere, oso gizon gutxi hartu izan dute parte ekintzetan. Orokorrean, parte hartzen duten pertsonen profila, 50 urtetik gorako emakumeena da. Eskaintza zabala da eta mugimenduzko ekintzak ere topatu daitezke bertan (bio-dantza, yoga, zumba, stretching-a, sabel dantza, e.a.)

Orain arte iraupen ezbedina izan badute ere, hemendik aurrera ikastaro edo ekintzen iraupena 4 hilabetekoa izango da: irailtik abendura bitartean eta urtarriletik apirilera bitartean, gutxi gorabehera.

Mugimenduzko ekintzak antolatzeko egun dagoen arazo larriena, instalazioena da. Villa Mirentxun bertan egiten ziren mugimenduzko ekintza batzuk baina baldintza egokiak ez zaudenez, zentrorra pasa zituzten (yoga edo taichi bezalako jarduerak). Kiroldegira eramateko saiakera ere egin zen baina zarata arazoak medio, ezinezkoa izan zen.

Antolatzen diren jarduerak zentroak bere kabuz antolatzen ditu baina aurten, esaterako, zumba pilates eta stretching-eko eskaintzak zentroak egin baditu ere, kiroldegian burutuko dira saioak baina ez kiroldegiko eskaintzarekin batera. Bi arrazoi egon daitezke honetarako: bat, prezioa, zentroko ikastaro batzuk merkeagoak baitira eta bestea, ekintzetan parte hartzen duten gehienak 50 urtetik gorako emakumeak direnez, kiroldegiko ekintzen erritmoa beraientzat gehiegizkoa izatea; eta, azkenik, emakume hauek jarduera egiteko erosoago sentitzen direla adin berbereko beste emakume batzuekin, adin ezberdinetako pertsonekin baino.

**Bestalde, adinekoentzat ere “Ondo ibili – Caminar es salud” programa sustatzen aritu da udaleko** beste zerbitzuekin eta herriko elkarte ezberdinekin lankidetzan. Ekimen hau Etorbizi proiektuaren lan-ildoetako bat izan zen baino proiektu honetan ere badira zahartzaro aktibo baten alde aurreikusten diren helburu eta lan ildo gehiago.



## HIRIGINTZA ZERBITZUA

Lasarte-Oriako Kirol eta Jarduera Fisikoaren Planean Hirigintza barneratzerakoan ingurune fisikoak (bai eraikitakoa bai naturala) bizitza eredu aktiboagoak erraztu edo zaildu ditzakela ulertzen da.

Planari dagokionez, Hirigintzako esparruko hainbat atal dira aipagarriak:

- **Araudia**

2005eko apirilak 1 eta 4ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako eta 2004ean idatzitako Arau Subsidiarioak daude egun indarrean.

Hirigintza Zerbitzutik Arau Subsidiarioak berrikusteko eta eguneratzeko asmoa azaldu dute. Horrela, aukera ona izan daiteke jarduera fisikoarekin harremana duten eta jarduera fisikoa egitea erraztuko duten irizpideak (Hirigintza Aktiboko irizpideak) barneratzeko.

- **Mugikortasuna**

Ez dago Mugikortasun Planik udalerrirako; hala eta guztiz ere, trafikoaren eta zirkulazioaren inguruko ebaluazio bat egiten ari dira.

Herrigunean udalerriko zerbitzu kopuru altua dago eta herrigunetik kanpo bizi direnak kotxearen erabilera handiagoa egiten dute. Horregatik, besteak beste, bizikletaren erabilera erraztu eta sustatu beharra dago.

Oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbideak hobetzearen aldeko apustua egin da, badira zenbait ibilbide plano gainean eginda daudenak eta, epe motzean, ibilbide hauen seinalitika jarriko dute. Bestalde, Lasarte-Oria eta Donostia elkartuko dituen bidegorria ere aurreikusita dago eta mugikortasun aktiboa sustatzeko elementu garrantzitsua izango da udalerrirako.

Eskolara joateko bide segurua. 8-12 urte bitarteko neska-mutilei zuzendutako ekimenak dira hauek. Sasoeta-Zumaburuko kokapenak mota honetako proiektu bat abian jartzeko aukera eskaintzen du, eskola adinekoen artean mugikortasun aktiboa sustatuz.

- **Espazio publikoa**

Lasarte-Oriak parke eta plaza ugari ditu jolasteko edo ekintza ezberdinak burutzeko. Hauetan jarduera ugari somatzen da eta, batzuetan, leku berean egiten diren jarduera ezberdinek elkar **oztopotzen dute (bizikletak, patinak, baloiak, pilotak...)**.

Bestalde, ingurune naturalak inguruan eta gertu egoteak jarduera dinamitzeko aukera ugari eskaintzen ditu.

Kale Nagusiak, zati batzuetan oinezkoek lehentasuna izan arren, eta trafiko asko ez egon arren, udalerrira bitan zatitzen jarraitzen du. Hala ere, trafikoari itxita egotea urtean egun batzuetan (edo hilabeteetan egun batzuetan) aukera ona izan daiteke herritarrak herrian zehar oinez ibiltzeko eta jarduera ezberdinak dinamitzatzeko.

## 4. Azpiegitura eta instalazioak

### 4.1. Ingurune naturala

Lasarte-Oriako Udalak eta Buruntzaldea Kirolak-ek jarduera fisikoa sustatzeko eta eskualdeko landa ingurunea ezagutzera emateko ibilbide ezberdinak diseinatu zituen eskualdean barrena. Guztira bost dira ibilbideak eta bakoitzak ezaugarri ezberdinak ditu (luzera, iraupena eta gehieneko desnibelak ibilbide bakoitzean ezberdinak dira). Horrez gain, Lasarte-Oriako Ibilbidea dago. Udalerrri bakoitzean ibilide-zatiak trazatuta adierazita daude eta ibilbidearen profila eta distantziak zehazten dituzten kartelak ere badira. Ibilbideetan barrena norabideak eta distantziak adierazteko geziak eta zuinak erabiltzen dira.

Ibilbide hauek ezagutzera emateko Buruntzaldea Kirolak-ek Buruntzaldeako Ibilbideak Eguna antolatu izan ohi du.


Buruntzaldeako ibilbideak



ITURRIA: Buruntzaldea Kirolak

Landa eremuaz gain, Lasarte-Oria kostatik oso hurbil dago. Donostiako Ondarreta hondartzara soilik 7 kilometrotara; autoz edo autobusez 10-15 minutu behar dira bertara iristeko. Bestalde, udaran igerileku irekiak ere badira Urnietan eta udal instalazioetako bazkideek sarrera doakoa dute.

Lasarte-Oriatik Donostiako Ondarreta hondartzara dagoen distantzia



ITURRIA: Google.com

## 4.2. Herri-ingurunea

Lasarte-Oria eta Donostia elkartzen dituen bidegorriari dagokionez, bi zati falta dira ibilbidea osatzeko. Garaikoetxea-Landaberri ikastolatik Urbil merkatal gune inguruan dagoen Eusko Treneko trenbide zaharreraino doan ibilbidea eta bigarrena, hortik hasi eta Donostirainokoa. Lehenengoa egiteko ardura Udalarena da eta 2015eko aurrekontuetan sartzeko asmoa adierazi du. Bigarrena Gipuzkoako Foru Aldundiaren ardura da eta 2015eko apirilerako prest egotea aurreikusten da.

## 4.3. Kirol eta Jarduera Fisikorako instalazio eta ekipamenduak

### 4.3.1. Herri mailan

Kirol eta jarduera fisikoaren praktikorako kirol instalazio eta ekipamendu ezberdinak daude eta kirol instalazioak ez izan arren, badira beste udal eraikin batzuk ere jarduera fisikoaren praktikorako erabiltzen direnak:

-Kirol gune nagusiak: Kiroldegia eta Mitxelin gunea.

-Beste kirol instalazio batzuk.

-Ikastetxeak.

-Beste udal eraikinak: Kultur Etxea, Gaztelekua, Sexuen Elkarbizitzarako Emakumeen Zentroa, Villa Mirentxu.

Atal honetan, batetik, instalazio eta ekipamenduen deskribapen laburra ageri da eta, bestetik, bai elkarteek eta baita erabiltzaile batzuk eginiko eskaeran adierazitako beharrazk laburbiltzen dira:

#### LASARTE-ORIAKO KIROL JARDUERETARAKO INSTALAZIO ETA EKIPAMENDUAK



##### MITXELINGO FUTOL ZELAIA

Belar artifiziala duena. Zazpiko Futbolera jokatzeko margotua. Inguruan korrika egiteko bidea dauka. Errugby-an jokatzeko egokituta dago.



##### ATLETISMO MODULOA

Mitxelingo kirolgunean kokatua. Ondokoez osatuta: abiadura probak egiteko zuzena, pertika, altuera eta luzera jauziak egiteko fosoak, pisua, xabelina eta mailua jaurtitzeko eremua. Futbitoko pista ere badu.



#### MITXELINGO FRONTOI ESTALIA

Neurriak: 40x20 metro. Ikusleentzat harmaila finkoak dauzka.



#### PISTA ESTALIA

Zola sintetikoa duena eta harmaila teleskopikoarekin.



#### KIROLDEGIKO IGERILEKUA

Girotua. Bi ontzi ditu, 12,5x25 eta 12,5x5 metroko ur azalera dutenak.



### MUSKULAZIO GELA

Ondoko hornidurekin: Muskulazio makinak, halterak eta mankuernak.



### BALIO ANITZEKO PISTA

Egokia aerobika, mantenimenduko gimnasia, tonifikazioa, pilatesa, strechinga eta erritmo gimnastika egiteko.



### TATAMIA

Judoan, Karatean eta Kenpon jarduteko.



### GELA KARDIOBASKULARRA

Bizikletak, arraun-ergometroak, korrika egiteko zintak eta makina eliptikoekin hornitua.



### SQUASHAK

Atzeko pareta kristalezkoa dute frontisa panel fenolikoz egina eta lurra tarimazkoa.



### SAUNA

Gizon eta emakumeentzako bereiztua.



### TENIS PISTAK

Tenisean jarduteko estalitako bi pista arauzko neurriekin.



### BALIO ANITZEKO PISTA

Zoladura sintetikoak duena.



**BOLATOKIA**  
Estalia eta aparteko sarrerarekin.



**TRINKETEA**  
Estalia. Neurriak: 28,5x8,5. Erabilera Kiroldegitik kudeatzen da.



**INDOOR TXIRRINDULARITZA GELA**  
Giroitutako gela, musika ekipoarekin eta bizikletekin hornitua.



**PLAZA BERRIA FRONTOIA (ORIA AUZOAN)**  
Estalia; erabilera librea.





**MITXELIN GUNE ONDOKO FRONTOIA**  
Irekia; erabilera librea.



**LOIDIBARRENGO FRONTOI ESTALIA**  
Estalia; erabilera librea.



**LOIDIBARRENGO PADEL PISTAK**  
Erabilera Udal Kiroldegitik kudeatzen da.  
Argiztapen artifizialaz gain, kristalezko itxitura eta belar artifiziala dauzka.



**LOIDIBARRENGO ESKALADA-MURRUA**  
Erabilera Udal Kiroldegitik kudeatzen da.  
Argiztapen artifiziala du eta erdiestalia dago; 20 metroko bulderra du eta 5 metrotan eskalatzeko bideak ditu (6 metroko altuera arte).



BITARTEKO TENIS PISTA  
Irekia; erabilpen librea.



SKATE PISTA (GOIEGIN)  
Irekia; erabilpen librea.



CALVA PISTA  
Irekia; erabilpen librea.



ORIAKO KANTXA  
Irekia; erabilpen librea.




BURUNTZAZPIKO KANTXA  
Irekia; erabilpen librea.



KULTUR ETXEA



GAZTELEKUA



SEXUEN ELKARBIZITZARAKO ZENTROA



VILLA MIRENTXU

Ondorengo taulan kirol instalazio eta ekipamenduen inguruan kirol elkarteek adierazitako beharrak jasotzen dira:

Kirol elkarteek instalazio eta ekipamenduen inguruan dituzten beharrak

## INSTALAZIOEN INGURUKOAK

Egun futbolari dagokionez, eskaintzen duten elkarten artean harmonia ona dago eta baita Udalarekin ere, eta denboraldi hasieran entrenamenduen plangintza egiterakoan taldeen artean ondo moldatzen dira dagoen espazioa banatzeko baina eskaera handituz badoa, etorkizunean arazo bat sortuko da herrian.

**“Gimnasioa erabat zaharkituta dago eta aireztapena ez da oso ona.”**

**“Zenbait orduetan saturatuta egoten da eta jende askok joateari uzten dio.”**

**“Atletismoko behar bezalako pistak falta dira herrian.”**

**“Ibiltzen den jende kopuruagatik, kiroldegia handitu beharra dago eta dagoen egoeran, bai eraikuntza bai ekipamenduak, eraberritu beharra dago.”**

Areto futboleko kirol instalazio eta ekipamenduei dagokienez:

Kiroldegiko balio anitzeko pistan itoginak daude eta eguzki asko egiten duenean ez da ondo ikusten eta jokatzera eragotzi egiten du.

Mitxelingo areto futbolerako zelaia nahiko berria den arren, homologatu gabe dago eta ezinezkoa da gainera, ez baititu beharrezko neurriak betetzen.

Mitxelingo areto futboleko zelaian duela ez urte asko estali eta lurra aldatu zen baino gaur egun instalazioaren egoera okerragoa da: goizeko ihintzarekin eta euria egiten duenean lurra busti egiten da eta arriskutsua da bertan aritzea. Horrez gain, oso leku hotza da.

Igerilekuko irisgarritasuna oso txarra da. Gurpildun aurki batean dagoen edonork oso zaila du igerilekura sartzea.

Igerilekuko aldagetan ere ezintasunen bat duenak edo gurpildun aurki batean dagoenak ere ez ditu erreztasunak duxatu ahal izateko, instalazioa ez baitago behar bezala egokituta.

Bi aldagela daude egun kiroldegian, emakumeena eta gizonena. Bai hurrekin doazenak edo talde antolatuetan doazenak arazoa izaten dute umeekin sartzeko begiralea neska bada ezin duelako doan mutilekin aldagelan sartu edo berdin alderantziz, neskekin doan irakasle gizon batek edo begirale batek ezin du nesken aldagelan sartu taldeko neskekin.

Bolatokian ur-filtrazioak daude eta, ondorioz, jokoko lurreko oholak puztu egiten dira eta bestelako arazoak sortzen dira.

Rokodromoko edo eskalada murruko teila oso txikia da eta euria ari bada, dena busti egiten da eta ezinezkoa da bertan aritzea.

Mitxelino areto futboleko pistako lurra altxatu egiten da eta putzuak sortzen dira bertan.

Mitxelingo futbol zelaia saturatuta dago eta ezinezkoa da beste talde batek ere bertan entrenatzea. Arratsaldetan zelaia bitan banatzen da eta ordutegi aldetik, arratsalderako 4 entrenamendu tarte definitzen dira. Libre dagoen tarte bakarra, astelehenetako azkeneko tarte da.

ITURRIA: Norberak egina, kirol elkarteei eginiko elkarrizketak kontuan hartuta

Erabiltzaile talde batek, 284 pertsonak (bazkideen %4,5ak) sinatuta, Udalari eskaera luzatu zion eta bertan kirol instalazioen inguruko behar ezberdinak jasotzen ziren. Bazkide edo erabiltzaile bakoitzak ekipamendu zehatzen inguruko ekarpenak egin zituen eta, ondoren, guztiak elkartu eta aurkeztu egin ziren. Erabiltzaile talde honek beharrak lehentasunaren arabera ezberdinatu zituen eta, horrela, eginiko eskaerak lehentasunezkoak edo bigarren mailako behar bezala irudikatu zituzten. Ondorego taulan adierazitako behar ezberdinak aurkezten dira:

Erabiltzaileek Udalari eginiko eskaeran adierazitako beharrak

	Lehentasunezkoa	Bigarren mailakoa
<b>Gune kardiobaskularra</b>	Aireztapena hobetzea.	
	Zinta gehiagoren beharra, egungo eskaera maila kontuan izanik.	
	Bizikleta estatikoen mantentzea hobetzea.	
	Ordezko pieza izatea bat konpontzen ari den bitartean ordezkoa izan dezan.	
	Lurreko zerriak lehenago berritzea, ez dira batere itxurosoak, hondatuta baitaude.	
<b>Muskulu gunea (pesak)</b>	Beharrezkoa duten tresna hileroko koipeztatzea.	
	Hormei pintura-geriza ematea.	
	Makinen forruak lehenago berritzea.	
	Mankuerna gehiago ekartzea, dagoen eskaera kontuan hartuz.	
	Lurreko zerriak lehenago berritzea, ez dira batere itxurosoak, hondatuta baitaude.	
	Bizeps eta trizeps muskuluetarako barra txikiak (harreran daudenak) bertan jartzea.	
<b>Sauna</b>		Sarrera tarifa jeitsi edo kentzea.
		Mantentze lanak hobetzea.
<b>Igerilekua</b>	Korronte hotzak murriztu.	
	Dutxetako ur-presioa hobetzea.	
	Emakumeen aldageletan intimitate falta dago, atea irekitzean.	
	Takilen mantentze lanak hobetzea.	
	Aldageletan dagoen berogailu sistema ez da nahikoa.	
	Aldageletako sabaien konponketa.	
	Emakumeen aldageletan garbiketa lanak emakumeak egitea eta gizonezkoetan gizonek.	

<b>Gela aerobikoa</b>	Soinketa erritmikoa egiteko tapiza jartzea.	
	Tresna aerobiko gehiago jartzea.	
<b>Guztientzako</b>	Desfibriladorea izatea.	Kafetegian WiFia jartzea
		Pistan dauden itoginak konpontzea.
<b>Beste zenbait</b>	Udako ordutegia aldatzea.	
	Agiri orokorrak internet bidez egin ahal izatea.	
	Garbitasuna orokorrean hobetzea.	

ITURRIA: Lasarte-Oriako Udala

Kirol Zerbitzuak eskaerak aztertu zituen ondorengo neurriak hartu ziren:

-Garbiketa eta mantentze-lanei dagozkien eskaerak, lan hauetaz arduratzen den pertsonarekin aztertu eta neurriak hartu ziren

-Ekipamendu eta materialei dagozkien eskaera zenbait 2015eko inbertsioetarako hartu dira kontuan.

-Badira beste zenbait ordea, korrante hotzena edo dutxetako ur-presioarena, esaterako, konponbide zaila dutenak instalazioak berak dituen mugak baitira.



### 4.3.2. Eskualde mailan

Lasarte-Oriak eskualdeko Andoain, Urnieta eta Usurbileko Udalekin egun duen hitzarmenari esker, herriko bizilagunek beste herrietako udal kirol instalazioen erabilera doakoa du. Ondorengo taulan beste herrietako kirol instalazio eta ekipamendu ezberdinak ageri dira:

Eskualdeko kirol instalazio eta ekipamenduak

	Andoain	Lasarte-Oria	Urnieta	Usurbil
Ariztitzoko frontoia				x
Arrate pilotalekua	x			
Atletismoko pista	x	x	x	
Atsopakarreko kirol pista		x		
Balioanitzeko gimnasioa	x	x		
Bazkardoko frontoia	x			
Bitarteko tenis pista		x		
Bolatokia		x	x	x
Boulder-a		x		x
Buruntzazpiko kirol pista		x		
Calva pista		x		
Estali gabeko igerilekuak			x	
Fitness aretoa (muskulazio gela, kardio gela, tonifikazioa, estiramenduak)	x	x	x	x
Frontoia	x	x	x	
Futbol zelaia	x	x	x	x
Goiburuko frontoia	x			
Goikoplazako frontoia	x			
Harane Futbol Zelaia				x
Herriko frontoia				x
Hidromasaia	x			
Igerileku estaliak	x	x		x
Jauzi zuloa	x			
Kirol anitzeko pista	x	x	x	x
Kirol jardueren aretoa	x	x	x	x
Mitxelín fabrika ondoko frontoia				
Oriako kirol pista		x		
Padel pistak		x		
Plaza berria frontoia				
Rokodromoa	x		x	
Sauna	x	x	x	x
Skate pista		x		

Solarium-a	x		x	
Sorabilako frontoia	x			
Squash-a	x	x	x	x
Tatamia		x		x
Tenis pistak		x	x	
Trinketea		x		
Txirrindularitzako aretoa	x	x		
Txokoaldeko frontoia				x

ITURRIA: Buruntzaldea Kirolak


## 5. Herritarren iritzi eta proposamenak (karpa)

Urriak 26an, “Lasarte-Orian Bai” Kros Herrikoia ospatu zen egunean, Okendo Plazan karpa bat jarri zen. Bertan, herritarrek beraien iritzi eta proposamenak partekatzeko aukera izan zuten atal honetan aurkezten dira.

Jasotako ekarpen hauek guztiak hiru multzotan banatu dira, kirol eta jarduera fisikoaren esparruaren baitan: udal instalazioen eta hauen kudeaketaren ingurukoak, kirol eta jarduera fisikoko jardueren ingurukoak eta kirol ekipamendu ezberdinen ingurukoak.

Azpimarratzekoa da gerturatutako herritarren %64ak udal instalazioen eta instalazioen kudeaketaren inguruko ekarpenak dira; %25ak jarduera eta herriko eskaintzaren inguruko iritzi eta proposamenak dira; eta, azkenik %11k ekipamenduen ingurukoak.

Jasotako ekarpenen gaiak



ITURRIA: Norberak egina

Herritarrek udal instalazio eta kudeaketan inguruko iritzi eta proposamenak:

Igerilekua eguerditan ez itxi.
Kiroldegia zaharkituta dago.
Gimnasioko materiala berritu beharra dago edo, bestela, mantenimendua hobeto zaindu.
Saunak abono barruan sartuta egin beharko luke.
Gimnasioko aireztapena hobetu beharra dago, bero asko egiten du.
Kiroldegiko espazioak berrantolatu beharra daude, barrutik berrantolatu edo bestela Mitxelineran eraman.
Igerileku berri bat behar da.
Kiroldegia zaharkituta dago.
Kiroldegia txiki geratu da, dabilen herritar kopurua kontuan hartuta.
Igerilekua eguerditan ez itxi.
Kiroldegia hobeto.
Kiroldegia berritu, zaharkituta geratu baita.
Instalazioak hobetu.
Rokodromoko mantzentze-lanak zaindu.
Kiroldegiko ordutegia zabaldu: eguerditan irekita eta asteburuetan lehenago ireki.
Kiroldegia zaharkituta geratu da.
Kiroldegia handitu.
Gimnasioan lan aerobikoa egiteko makinak berriak ipini, zaharkituta geratu dira daudenak.
Gimnasioan soka bat jarri.
Beste igerileku bat behar da.
Kiroldegia zaharkituta eta txikia geratu da.
Kiroldegia txikia geratu da.
Igerilekua urria da; txiki geratu da.
Igerilekua berritu beharra dago.
Kiroldegiko mantenimendua gehiago zaindu behar da.
Kirol eta jarduera fisikorako diren instalazioak zentralizatu.
Gaur egun igerilekua eguerditan itxi egiten da garbiketa-lanak direla eta. Eguerditan irekita behar du egon, batez ere, lan egiten dugunok bestela zaila baitugu beste ordu batean joatea.
Instalazioak zaharkituta daude.
Kiroldegia zaharkituta eta txikia geratu da. Ondorioz, berregituraketa baten beharra du: <b>sauna, igerilekua...ur jarduerak alde batean eta beste guztia beste aldean.</b>
Kardioko gela oso txiki geratu da.
Egungo kiroldegia ezin bada erainkin berean berrantolatu, Mitxelin gunera eraman.
Igerileku handiak sakonera handia du eta txikiak, aldiz, oso gutxi. Tarteko neurriren batean pentsatu beharra dago.
Ordutegia zabaldu, bai neguan bai udaran.

Gimnasioko makinak berritu.
Jarduerak egiteko malgutasun eskasa.
Zaharkituta eta saturatuta.
Gimnasioa handitu, aireztapen egokia jarri eta makinak berritu behar dira.
Kiroldegiko mantenimendua gehiago zaindu behar da.
Aireztapen arazo larriak ditu kiroldegiak.
Udarako ordutegia aldatu behar da.
Aldagela gehiago behar dira.
Igerilekua oso txikia da.
Adinekoentzat eta ezintasunen bat duten pertsonentzat igerilekuak oso irisgarritasun maila eskasa du.
Futbolera diren kirol instalazio eta ekipamenduak, futbol elkarteek kudeatu behar dituzte probetxu handiago aterako baitzaie horrela (taberna, udaran, ordutegien malgutasuna).
Herriko kirol instalazioak bateratu edo bestela bi abono mota jarri.

Herritarrek jarduera eta eskaintzaren inguruko iritzi eta proposamenak:

Multikirolaren baitan, futbolarak pisu handiegia du. Multikirola beste kirol batzuk sustatu ditzala, futboleko eskaintza herrian oso handia baita eta nahi duenak aukera du egiteko.
Kiroldegiko eskaintza garestia da (ekintzak).
Oinez eskolara.
Ekintza asko daude adin guztietako herritarrentzat.
Familian egiteko jarduera gehiago behar dira herrian.
Jarduerak egiteko ordutegiak oso mugatuak dira.
Lan egiten duenak zaila du kiroldegiko ekintzetan parte hartzea; are gehiago, lehen aldi bada izen ematea (aurretik daudenak lehentasuna baitute).
Kirol "festa" gehiago herrian.
Jarduerak antolatu Atsotabarreko parkean.
Malgutasun gehiago ekintzetan, ordutegi aldetik. Ekintza zehatz bat egun batzuetan eta ordu batzuetan bada, norberak ahal duenean joateko.
Kalean jarduera gehiago antolatu; kirola kalera atera.
Gazteentzako jarduera gehiago antolatu behar ditu Udalak.
Familian egiteko jarduera gehiago.
Dagoen eskaintza gehiago eman behar da ezagutzera.
Jardueren malgutasun falta.
Gorputz mugimenduzko jarduera zabaldu behar da kiroldegian.
Herriko eskaintza, orokorrean, ez da ezagutzera ematen.
Adinekoentzat eskaintza zabalagoa behar da.

Herritarrek kirol ekipamenduen inguruan emandako iritziak eta eginiko proposamenak:

Bidegorri sarea handitu.
Donostiarainoko bidegorria behar da.
Urbil inguruko zelaia txukundu eta atletismoan aritzeko prestatu.
Motorren zirkuito bat egin.
Oso ongi dago adinekoen zat parkea.
Buruntzaldeako bideak markatu.
Bideak seinalizatu.
Bidegorriak amaitu: Lasarte-Oria eta Donostia artekoa eta Lasarte-Oria eta Usurbil artekoa.

## DIAGNOSIA

### AMIA kuadroa

#### AHULDADEAK

- Udal instalazioen eta hauen kudeaketaren inguruko iritzi ezkorra (kiroldegia zaharkitua eta txikia).
- Udaleko sail ezberdinetatik kirola eta jarduera fisikoa sustatzeko egiten den eskaintzan dagoen koordinazio falta.
- Eragile ezberdinek kirola eta jarduera fisikoa sustatzeko plazaratzen duten eskaintza orokorraren falta.

#### MEHATXUAK

- Eskola kirolek elkarteetarako dagoen jauzian, kirolari kopuruaren beherakada.
- Nesken partaidetza baxua elkarteetan.
- Etorkizunean kiroldegiko bazkidetzak eta kirol elkarteetako partaidetzak gora eginez gero, herrian kirola eta jarduera fisikoa egiteko egongo den espazio falta.

#### INDARRAK

- Eskualde mailako “Buruntzaldea Kirolak” egiturak herritarrei eskaintzen dien aukera udalerrir ezberdinetako kirol instalazioak erabiltzeko eta kirol ekintzetan parte hartzeko.
- Eskola kirolean dagoen eskaintza zabala eta partaidetza maila.
- Udaleko sail ezberdinetatik kirola eta jarduera fisikoa sustatzeko egiten den eskaintza zabala.
- Euskararen trataera kirol eta jarduera fisikoan.

#### AUKERAK

- Agenda bateratu bat osatzeko aukera, herriko eskaintza guztia bilduko duena.
- Bidegorri sarea osatuz gero, ibilbideekin batera, jarduera fisikoa egiteko aukera udalerrian.
- Osasun Zentroarekin eta Gizarte Zerbitzuekin elkarlanean, antolatu daitezkeen ekintzak adinekoen artean ohitura osasungarriak sustatzeko.